

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a / 717. zenbakia

INAZIO LAKUNTZA ETA JOXE ETXEBARRIA GOITB-N/ Herriko kontuak berbagai

## Bizpahiru urte barru, etxebizitzaren egoerak hobera egingo duela espero du alkateak

UBANE MADERA

Joan den martitzenean, Inazio Lakuntza alkatea eta Gizarte Sustapeneko Batzordeko buru Joxe Etxebarria GOITBn izan ziren. Esandakoen artean, jakinarazi zuten helburu nagusienetako bat dela etxebizitzaren eskaintza zabaltzea, jendea hemen bizi ahal izateko.

Azken urteotan Arrasaten gertatu den biztanleen jaitsierarekin kezkatuta azaldu zen Inazio Lakuntza *Debarri* saioan: "Behintzat, biztanle kopurua mantendu gura dugu". Horretarako etxebizitzaren eskaintza zabala behar dela nabarmendu zuen: "Edozein motatako etxebizitzaren eskaintza behar dugu". Horren harira, jakinarazi zuen zenbait proiektu abiarazita daudela eta bizpahiru urte barru poltsiko guztietarako moduko eskaintza izango dela Arrasaten: "Zerrajeran babestutako 200 etxebizitza egingo ditugu, Gelman 500 etxe berri (140 babestutakoak); Urribarrin, beste 140 (40 babestutakoak)...". Horrez gainera, jakinarazi zuen gazteei begira bestelako aukera batzuk lantzen ere badabiltzala: "Gazteendako etxebizitza txikiagoak edo alokairuzkoak edo sortzeko aukera aztertzen gabilta".

### GIZARTE ZERBITZUAK ETA MOJATEGI

Bestalde, gizarte zerbitzuekin lotutako puntu dezente argitu zituen Aralarko zinegotzi Joxe Etxebarriak. Esaterako, Iturbide egoitzari begira, jakinarazi zuen hura birmoldatzeko proiektua eginda dutela, eta oro har, asmoa dela egoitzan hamar plaza gehiago sortzea (guztira 108 izango ditu etorkizunean) eta egoitzak dituen gabeziak eguneratzea. Halaber, esan zuen bi urte barru-edo hasiko direla lanak egiten eta oraindik ez dutela erabaki bien bitartean non emango duten Iturbide gaur egun ematen duen zerbitzua.

Gizarte zerbitzuekin lotuta, baita ere, iragarri zuen Zerrajerako etxebizitzaren gunean tutoretzapeko etxebizitza gehiago egingo dituztela aurrerago.

Mojategiko instalazioen gainean ere galdetu zioten alkateari. Hark aditzera eman zuen 17 enpresa aurkeztu direla lanak egiteko lehiaketara eta laster hasiko direla lanean: "Uda osterako-edo". Jakinarazi zuen 12 milioi eurotik gorako aurrekontua dutela lanek. Halaber, hortik milioi eta erdi euro pasatxo Diputazioak emango duela eta gainerakoa finantzatzeko bestelako iturriak erabili beharko dituztela, esaterako, Atxabalpeko etxebizitzek emango dituzten irabaziak.



MIKEL SAIZ

Ezkerretik eskumara: Joxe Etxebarria zinegotzia, Alberto Gorritiberea aurkezlea eta Inazio Lakuntza alkatea, *Debarri* saioan.

### KOLEKTorea, ARAZTEGIA ETA IBAIA

Bestalde, herrian egiten dabil-tzan kolektorearen lanak direla-eta, Inazio Lakuntzak esan zuen espero dutela 2007rako den-dena bukatuta izatea. Era berean, jakinarazi zuen Otalora kalean egin duten zuloa, ibairainokoa, ez dute-

la tapatuko lanak bukatu ostean. Lekua txukundu eta ibaia bistan utziko dutela.

### ILEGALIZAZIOA DELA-ETA

Egoera politikoaren gainean, berriz, alkateak esan zuen ezer gutxi egin dezaketela harik eta

Madrilgo gobernuak ilegalizazioaren gaineko legea bertan behera utzi arte. Aditzera eman zuen datoren bozeramaileen batzordean Arrasateko taldeak aurkeztutako mozio bat lantzekotan direla, baina edozelan ere, irtenbide gaitza ikusten diola gai horri.

## Josu Uribetxeberria preso aske uzteko eskatu dute, minbizia du-eta

U.M.

Uribetxeberriaren senide eta lagunek uste dute kartzelako bakardadean gaixotasunari aurre egitea ezinezkoa dela. Horrenbestez, sendatu bitartean, zigorra eten eta presoak etxera ekartzeko eskatu dute.

Senitartekoen prentsaurrekoan jakinarazitakoaren arabera, Josu Uribetxeberriari giltzurruneko minbizia diagnostikatu diote duela hilabete. Hala, preso arrasate-

arra Langraitz Okara (Araba) ekarri behar dute Puerto de Santa Maria (Andaluzia) kartzelatik. Izan ere, ebakuntza egin behar diote Donostian.

Eugenio Iturriotz mediku arrasatearraren esanetan, larria da Josu Uribetxeberriaren egoera. Eta presoak etxean egon beharko lukeela uste du; kimioterapia jaso behar du hark, eta tratamenduari behar bezala erantzuteko, kartzelako ziega bateko bakardadean baino gehiago, etxeko ondoan egotea komeni zaiola adierazi

zuen. Horren harira, presoaren senideek aditzera eman zuten gaur egungo legeen arabera etxean beharko lukeela presoak.

### PRESOAREN ALDEKO TALDEA

Hala, presoaren etxeratzearen aldeko taldea sortu gura dute Arrasaten. Eta bestetan moduan, herritarrei laguntza eskatuko diete hori lortzen laguntzeko.

Uribetxeberria orain dela zortzi urte atxilotu zuten. Puerto de Santa Marian (Andaluzia) egin ditu urte gehienak.



NEREA ZUBIETE

Presoaren senide eta lagunek prentsaurrekoa egin zuten, Iturriotz medikuarekin.



ELKARRIZKETA

AMAIA ESPARTZA / MUGARIK GABEKO MEDIKUAK ELKARTEKO KIDEA

# “Uganda bezala benetako krisialdian bizi diren herrialdeei inork ez die kasurik egiten”

UBANE MADERA

**A**maia Espartza arrasatearra, Iban semea eta Hugo Montoya senarra Ugandara joango dira ekainaren hasieran, hiriburura, Kampalara. 100.000 bat pertsonari laguntzeko azpiegiturak ezartzera doaz Afrikara; hasteko, urtebeterako.

**Zeintzuk dira hango behar nagusiak?**

Ugandak 18 urte baino gehiago daramatza barne-gatazkekin eta horren ondorioz, iparraldean pertsona askoren desplazamendua gertatu da. 1.600.000 lagun inguru 200 bat errefuxiatu esparrutan bizi dira. Esparru horietan ez dago komunik, ez dago estolderiarik, ez dago ur-putzurik, ez dago medikurik... ez dago ezer. Guk hiru osasun-etxe irekiko ditugu, hiru esparrutan. 100.000 lagun inguru bizi dira han. Malariari, tuberkulosiari, ohiko katarroei... aurre egiteko atentzio medikoa

emateaz gainera, ur eta saneamenduarekin lotutako lanak ere egingo ditugu ur-putzu gehiago ipintzeko; komunak ere egingo ditugu eta ura drainatzeko sistema ezarriko dugu, ur geldiak saihesteko; modu horretan, haien bitartez transmititzen diren gaitasunak eta eltxoen ugalketa saihestu gura dugu, malaria batez ere. Era berean, eltxo-sareak banatuko ditugu eta txabolak (tukule-ak) fumigatuko ditugu eltxoak akabatzeko.

**Zein azpiegitura duzue?**

Proiektua hutsetik hasi behar dugu. Orain, bi lagun daude han, gu iritsi arte. Hugo senarra logista da. Maiatzaren amaieran iritsiko da hara eta hura hasiko da behar dugun materiala, medikamentuak eta beste erosten.

**Eta zela egingo duzue lan?**

Hamahiru lagun izango gara han, gehienak Estatukoak, baina argentinar bat ere badago, italiar bat, kenyar bat... Horrez gainera, ugandarrak ere ibiliko dira gure-



U.M.

kin lanean. Misioa dezente handia izango da. Bi gunetan banatuko dugu: hiriburuan koordinazio taldea izango gara, erakundeekin eta bestelako elkarteekin izan beharreko harremanak lantzen; eta iparraldean lan praktikoa egingo dugu: komunak, osasun-etxeak...

**Umearekin zela konponduko zarete?**

Gatazka iparraldean dago, hala, gu hiriburuan biziko gara, batez ere, umeari gutxieneko bizi-kalitatea eman ahal izateko.

**Zergatik Uganda eta zergatik orain?**

Krisialdi handia dago, behar handiak dituzte, batez ere osasunaren ikuspegitik. Estrategikoki ere leku garrantzitsuan dago, Ruanda, Burundi eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren erdian; hala, inguruan gertatzen diren gauza asko Ugandatik pasatzen dira. Eta zergatik orain? Bada, une egokia delako, batez ere umearengatik.

## ASTE BERDEA '05

maiatza

30 31

01 02 03 04 05

ekaina

# ARRASATE

**BIR-ZIKLETA** merkatua

Larunbata **28** 11:00etatik -13:00etara

UDAL AZOKAN  
mercado de abastos

Asteartea **31** eta Osteguna **2** 11:00-13:00  
17:00-19:00

Larunbata **4** Bigarren eskuko bizikletaren merkatua  
11:00-13:30 eta 17:00-19:30 Jokin Zaitegi plazan  
+ puzgarriak

Asteartea **31** **KONPOSTAJEA**  
erakusketa-demostrazioa Seber Altube plazan.  
17:00-20:00

Asteazkena **1** **MURAL ERRALDOIA**  
margotzea adin guztietako umeentzat  
17:00-19:00  
Seber Altube plazan.

Osteguna **2** **KONPOSTAJEA**  
erakusketa-demostrazioa  
Seber Altube plazan.  
17:00-20:00

Ostirala **3** **BIRZIKLATZE TAILERRA**  
Materiala birziklatzen eta berrerabiltzen ikasteko.  
17:00-19:00

**KALE ANTZERKIA** Kolax taldearekin  
"INGURUMENUA" antzezlanak. 19:00

Igandea **5** Goizean adin guztietako umeentzako  
**BIRZIKLATZE JOLASAK** eta  
**ESKULAN TXOKOA**  
11:30-13:30 Seber Altube plazan.





## Kalean dauden 250 oztopo kenduko ditu Udalak datozen urteotan

U.M.

Udaleko zerbitzu teknikoek egindako ikerketa baten arabera, Arrasaten 250 oztopo arkitektoniko daude, kalean. Asmoa da apurka-apurka oztopo horiek kentzea. Hala, 2005ean 22 kenduko dituzte. Esaterako, San Andresko autobus geralekuan, Iturriperako sarreran eta Bedoñaben.

Herriko kaleetan dauden oztopoak aztertu ditu Udalak; hain justu ere, aztertu dutena da ea herriko espaloietan badauden haiek errazago jaitsi eta igotzeko aldapatxoak. Eta lehen esandako moduan, 250 lekutan hala-ko aldapatxoak falta direla ikusi dute.

Horrenbestez, Udalaren asmoa da aldapatxo horiek erakitzen joatea. Eta dagoeneko, eraiki dituzte batzuk, jakiteko zenbat denbora eta zenbat diru beharko duten herriko oztopo guztiak ezabatzeke.

### AURTEN, 22 ALDAPATXO

Hala, zerbitzu teknikoaren emaitzen arabera, aldapatxo guztiak egiteko 822.500 euro pasatxoko aurrekontua behar du Udalak.

Gauzak horrela, erabaki dute zatika egitea lan horiek. Halaber, zehaztu dute lehentasuna izango



Udalaren nahia da argazkian ikusten diren moduko aldapatxoak ipintzea.

dutela herriko etorbide nagusietan egin beharrekoak, ospitale ingurukoak eta anbulatorio ingurukoak. Guztira, halako 39 oztopo daude herrian eta horiek konpontzeko, ia 73.500 euro behar ditu Udalak. Hori lartxo dela-eta, 2005ean, 22 aldapatxo egitea pentsatu dute, 63.500 euroko aurrekontuarekin. Esaterako, Iturriperako sarrera egokituko dute, San Andresko autobus geralekua, Gipuzkoako foruen plaza,

Zarugalde, Uarkapeko aldapa, Uribarri etorbidea eta Bedoñabe eskola, besteak beste.

### URTEAK BEHAR DITUZTE

Eta hortik aurrera, hurrengo urteetan, aurrekontuaren arabera joango dira gainerako espaloiak konpontzen. Edozelan ere, Udalak egindako azterketaren arabera, sei bat urte beharko dituzte herriko oztopo guztiak ezabatzeke.

## Aste Berdea ospatuko dute datorren astean, tartean, Bir-Zikleta azoka

U.M.

Martitzenean hasi eta domekara arte izango dira ekitaldiak. Besteak beste, umeendako ekitaldiak izango dira. Baita ere bigarren eskuko bizikletak, kaskoak, gorpilak, koadroak... erosteko azoka.

Martitzenean eta eguenean, 17:00etatik 20:00ak arte, konpostajea zer den landuko dute.

Demostrazioa egingo dute Seberren, 17:00etatik 20:00etara.

Eguaztenean, berriz, adin guztietako umeek mural erraldoia margotu ahal izango dute, 17:00etatik 19:00etara, Seberren.

Egubakoitzerako, birziklatze lantegia antolatu dute, 17:00etatik 19:00etara; eta horren ostean, Kolax taldearekin kale-antzerkia izango da.

Ekitaldi arrakastatsuen, berriz, zapaturako utzi dute: Bir-

Zikleta azoka: bigarren eskuko bizikleten eta halako materialaren azoka. 11:00etan zabalduko dute 13:30ak arte eta 17:00etatik 19:30ak arte, Jokin Zaitegin. Horrekin batera, puzgarriak ere izango dira.

Azokarako materiala martitzenean, eguenean eta zapatu goizean batuko dute, azoka txikian.

Bukatzeke, domekan, adin guztietako umeendako birziklatze jolasa eta eskulan txokoa izango da, Seberren 11:30etik 13:30ak arte.

## LABUR

### Udaleko zortzi lanpostu finkotarako izena emateko epea oraingo astean zabaldu dute

Funtzionario izaera duten zortzi lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak. Hain justu ere, dagoeneko zabalik da izena emateko epea: joan den eguaztenean, hilak 25, zabaldu zuten eta ekainaren 13ra arteko epea dago horretarako. Arkitektoa, kirol teknikaria, prebentzio eta gizarteratze teknikaria, saneamendu eta mantentze-lanetako teknikaria, erizaintzako bi diplomadun, aisialdirako begiralea eta Aukeako langilea behar ditu Udalak.

### Premi San Pedro arrasatearrak izan duen epaiketa lotsagarria izan dela salatu dute

Bigarren epaiketa izan du egunotan San Pedrok. Ustez 2001ean Logroñon bonba-auto bat ipintzeagatik epaitu dute. Haren neskalagunak salatu duenez lotsagarria izan da epaiketa, fiskalak behin eta berriro legea urratu dutela salatu du eta epaileak sistematikoki bat egin duela harekin. Oro har, defentsa-gabezia izan dutela esan du.



### Apartheid-a salatu zuten urteurrenean

Eguaztenean, hilak 25, bi urte bete ziren Alderdien Legearen ondorioz, alderdi bat hauteskundeetara aurkezteko aukera barik utzi zutela. Hala, urteurren hori gogora ekartzeko kale bilkura egin zuten plazan. Besteak beste, han izan ziren lehengo alkate Xabier Zubizarreta eta zenbait zinegotzi. Horien artean, Utzune Urri-zalkik egoerarendako irtenbidea proposatu zuen: EAJk, PSE-EEk eta EBk osoko bilkuren aretoko jarleku bana libre uztea Herri Anitzeko zinegotziendako; eta alderdi horiek eta Aralarrek euren zerrendak hustea Herri Anitzaren ordezkariak izendatzeko.

ad Ihabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Monte  
taberna

Maialako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

BITTORI  
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 27**  
Azkoaga, Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- ZAPATUA, 28**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- DOMEKA, 29**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 30**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 31**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 1**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- EGUENA, 2**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 3**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. .... 943 03 53 00  
Igoalatorioa ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11
- ANBULANTZIARIK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44
- ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ..... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Juan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                           |
| <b>Domeka</b><br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)                              | <b>Domeka</b><br>10:00 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)                          |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                      | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>20:00 San Isidron (euskaraz)              |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (elebiduna)<br>12:00 (elebiduna)<br>19:00 (elebiduna) | <b>Domeka</b><br>12:30 (gaztelaniaz)  |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz) |
| <b>Domeka</b><br>11:30 (elebiduna)   | <b>Domeka</b><br>11:00 (elebiduna)  |

**OHARRAK**

**GKE-EN BERBALDIA**  
Eguaztenean, ekainaren leian, gobernuz kanpoko hainbat erakundek *Pobrezia*ren aurka... sakatu kanpaina aurkeztuko dute Arrasaten. Horretarako, berbaldia egingo dute San Andresko parrokiaren lokalean (Bañez Doktorea 1), 19:00etan. Hizlaria Alboan gobernuz kanpoko erakundeko kide Miguel Gonzalez izango da.

**NAGUSIEN DANBORRADA**  
Astelehenean, hilaren 30ean, nagusien danborradako entseguak hasiko dituzte. 20:30ean egingo dute, San Viatorren. Bigarren entsegua eguaztenean egingo dute. Hortik aurrera, astelehenero eta eguaztenero egingo dute hitzordua.

**IKUSKIZUNAK 3.60 ARETOAN**  
Gaur, egubakoitza, Virginia Imaz antzele eta klownak ikuskizuna egingo du 3.60 aretoan, 23:00etan. Bihar, zapatua, THC talde arrakastatsuen kontzertua egingo du ordu berean.

**KONTZERTUA GURE LEKUN**  
Gaur, egubakoitza, Los Reverendos rock-and-roll taldeak kontzertua egingo du Gure Leku tabernan (Zarugalde) 22:30ean. Doan izango da.

**AEDrenAGENDA**

**EUSKAL HERRIA ZUZENEAN JAIALDIAN LAGUNTZEKO**  
AEDko Gazte Sailak Euskal Herria Zuzenean jaialdian lan egiteko hitzordua egin du. Lagundu gura baduzu, jo AEDra, lehenbailehen.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**


**Gutxitasunak dituztenen aldeko astea aurkeztu**

Maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean gutxitasunak dituztenen aldeko hirugarren astea egin zuten. Berbaldiak, filmak eta antzezlanak antolatu zituzten. Besteak beste, Arrasateko Musika Eskolaren ikasturte bukarako kontzertua. Hainbat lagun egin zuten aurkezpena.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Sekulako"*



Handia, demasa, izugarria.  
— *Kotxia erosi jok, baiña sekulakua.*

JON IRAEGI

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOIA</b> Eguena, 19	<b>7°C</b>
<b>MAXIMOIA</b> Martitzena, 24	<b>30°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>5,1 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	20 °C	9 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 19	28 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 20	27 °C	10 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 21	24 °C	10 °C	4,9 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 22	16 °C	8 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 23	21 °C	10 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 24	30 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Bikoteen eskubide eta betebeharrak jasoko ditugu, besteak beste, 'Asteko Gainbegiratu'-n**

Bitart abokatutza eta bitartekaritza zerbitzuko Maider Morras abokatuarekin izan gara astean. Ezkonduak, izatezko edota ezer sinatu barik elkarrekin bizi diren hiru bikoteraren ezaugarriak aztertu ditugu. Egunerokotasunean, etxebizitza erosteko orduan, adibidez, bakoitzak dituen abantailak jakinarazi dizkigu Morras abokatuak. Asteburuko hitzorduan berreskuratuko dugu elkarrizketa hori.

an, astelehenean ere 107.7ko autobusean gaiarekin jarraituko dugu. Oraingo honetan, hiru bikote eredu horien umeak izango ditugu berbagai.

**IBILALDIA 2005, DOMEKAN**

Bizkaiko ikastolen aldeko jaia egingo dute domekan. Aurtengo Ibilaldia, 27. edizioa, Durangaldeko Kurutzia eta Ibaizabal ikastolen alde izango da. Astean, Idurre Maortua Ibaizabal ikastolako zuzendariarekin izan gara horren gainean berbetan.



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 Asteko gainbegiratu: Maider Morras abokatu; Idurre Maortua, Ibilaldia 2005; Leire Aperribai, Emakume Mundu Martxaren gainean; Usoa Mendikute, Londresen bizi den Bergarako margolaria...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).  
Elkarriketak.  
Zozketak, e.a...
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Zorion agurren tartea.  
Parte hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:40 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.



## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu leku publikuetan erretzien gaiñeko legie?



**TERESA LAZARO**  
Langabie




**ISABEL CARBALLARES**  
Langillie



**GARIKOITZ HERIZ**  
Langillie



**MIREN SAGASTA**  
Ikaslie



**ANARTZ AGIRRE**  
Langillie



**JESUS LERA**  
Langillie

Neu ez naz erretzaillie, eta keiek molestau egitten dust. Alde horretatik, lanien erretzailliendako tokixek ipinttie ondo ikusten dot, baiñe tabernetan eta... Hori gatxaue izengo da.

Neuretako exageraue da. Neu erretzaillie naz, eta erreten ez dauenai errespetau egin biher jako, baiñe... Gorde-gordeka ibilliko gare zigarro bat erreteko, eta gehixau erreko dou.

Gogorreixe pentsetan jat. Lanien erretzailliendako tokixek ipinttie, ondo dau, baiñe tabernetan eta hola-kuetan... Tabernan be danondako lekue egon biherko leuke, baiñe gatxa da.

Neu ez naz erretzaillie, eta neure birikek eskertuko daue, baiñe izen leike lege gogorregixe. Oin arte erretzaillie izen ez dienei ez jakue bapez errespetau, eta aurrerantzien, barriz, bai.

Izen leike lege hori apur bat exageraue izetie. Lanien ez erretie ondo pentsetan jat, baiñe tabernetan edo frontoietan, adibidez... Kontu hori ez neuke horren estremora eruenko.

Estremo batera eruen daue la pentsetan dot, exagerau egin dala. Neu erretzaillie naz, eta bestiek be errespetau egin biher dittut. Edukaziño kontue da, horren beste prohibidu barik.

## USTEAKUSTE

### Medikuak

Joan den astea zenbaki batekin laburtu behar izango bagenu, hori 33a izango litzateke. Jakingo duzuen moduan, zenbaki horrekin berdindu egin zituzten EAeko parlamentuan presidente kargua hartzeko bi kandidaturak. Ez dakit zenbat bozketa egin zituzten, baina bitxia izan zen bozketa bera hainbat aldiz egin izana. EHAK-k agindu zuen EAJ-EAK Atutxa aurkeztuz gero, ez ziola aldeko botorik emango. EAJk ez zuen hautagairik aldatu gura, eta bozketak errepikatu zituzten, Atutxa ordezkatu arte. Azkenean, Atutxarekin Barne Sailean lan egindako beste hautagai bat aurkeztu zuten, eta gehiengo jaso zuen. Hala ere, EAJ oso haserre dago EHAKrekin.

Bazen aspaldi medikuen esamolde ezagun bat: "Diga 33". Kasu honetan EAJk medikura edo okulistara jo beharko luke konturatzeko dagoeneko ez duela izan zuen gehiengo bera. Sasoi honetara egokitu beharko da.

Okulistara joateko premia duen beste bat ETA da. Ez dakigu zenbat aldatu den Espainiako Gobernuaren jarrera eta baliteke ilusio bat izatea, baina Madrilen bonba bat jartzea hanka-sartzea da. Medikua eta azkar etxera etortzea behar duena Josu Uribetxebarria da, minbizia duen Arrasateko preso.

IKER BARANDIARAN

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK TRABATUTAKO ESTOLDA** Astean, Udaleko garbitzaile-brigada ARRASATE PRESSen eraikinaren alboko estolda bat libratzen ibili da. Aspalditik trabatuta zegoen eta euria egiten duenean ez du urik irensten. Horregatik estolda zabaldu eta barruan zegoena ateratzen ibili dira. A zelako ustekabea, langileek estoldaren barruan presiopean sartutako esprai poteak eta harri handiak aurkitu dituztenean. Langile horiek eskatu digute euren haserrea adierazteko eta herritarrei esateko halakorik ez egiteko, guztion kalterako delako.

## ASTEKODATUA

# 210

**OZTOPO ARKITEKONIKO DAUDE HERRIAN**

Udalak, orain dela gutxi, azterketa bat egin du, herrian zelako oztopo arkitektonikoak dauden jakiteko. Asmoa da ahal den neurrian horiei aurre egitea. Udalak guztiak zenbatu ditu, eta guztira herrian 210 oztopo arkitektoniko daudela aditzera eman du.

## HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



### Abesti batekin

**B**arne zentzu batek garamatza maitasunerrantz", dio abestiak. Amodio kontuetan guztia edo ia guztia adieraz daiteke kantuen bidez. Batzuetan, norberaren kontsumorako dira letrak, gertatzen ari denari erantzuna aurkitu nahian. Bestetan, desiratzen den pertsonari edo dagoeneko bikotekideari mezu bat bidaltzeko erabil daitezke. Abestiak aukeratzeko ez dago urrun joan beharrik. Inguruan makina bat daude. Lerro hauetakoak, adibidez, gazteek egindako musika dira.

Hasteko, ohiko prozesua bada, norbait burutik ezin kendu dabilela konturatu denean pertsona, indarra har dezake ondokoarekin: "Ez pentsa gehio, esaiok!" (edo esaion). Jakina, puntu horretara heltzeko gehienetan denbora asko eta asko pasatzen da gure herrian, eta esfortzua handia da: "Burua galtzen hasi naiz inor ez bezala maite zaitudalako". Gainera, lan asko egiteagatik

garaipena ez da ziurra. Zorte onik ez bada izan badago zer abestu, nahiz eta momentu horretan sinistea kostatu: "Ez zara gaueko izar bakarra, ez zara!". Eta arrakasta lortuta, sukarrak gora. Posible da zer esaten den jakin gabe komunikazioa lortzea: "Zure keia eskuetan putzara batekin putz!". Ondoren, maitasuna betiko izango dela agertzen duten letrak daude, eta zenbait kasutan pragmatismoa ere azaltzen da: "Engaina gaitezen eta esadazu laztana honek beti iraun behar duela" (gazteletratik itzulita).

Hori izan daiteke prozesuaren amaiera. Hala ez bada, jarraipena ondokoa izan daiteke, ziklo berri posible baten atarian: "Aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena, baina orain, maitea lehen baino lehen aska gaitezen". Ahaztu barik aurreko faseekin lotutako edo loturarik gabeko kanta alaiagoak: "Ai bexamela" edo "Zoro moduen jarriko gara eta gozatzen goiza helduko da".

**"Amodio kontuetan ia guztia adieraz daiteke kantuen bidez. Batzuetan, norberaren kontsumorako izaten dira horiek"**

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martínez  
Amaia Mundiñano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala





ARRASATE PRESS

Jakin biharko mendi irteerarako beharrezkoa izango dela kaskoa eramatea.

KIROLA/ Mendi Astea

# Besaideren Mendi Astea amaitzeko, mendiko bizikletako irteera bi, bihar

XABIER URTZELAI

Gaur arratsaldean Pou anaiek egindako ikus-entzunezkoarekin amaitu dira astean zeharreko emanaldiak, baina Mendi Asteak asteburuan ere egingo du hitzordua, mendiko bizikletan ibiltzeko. Bihar, bi ibilbide izango dira aukeran.

Aurrekoan ere aurreratu genuen, Domekan Aizkorriko maratonia egingo dutenez, Besaidekoek ez dutela egun horretarako ezer prestatu gura izan. Hori bai, bihar buru-belarri ibiliko dira. Urtero moduan, mendiko bizikletarekin egiteko irteera antolatu dute, oraingoan, baina, bi ibilbiderekin. Bizikletan asko ibili ez direnek, Musakolako kiroldegitik (09:00etan) Besaide aldera egingo dute, handik Udalatxi itzulia eman eta Kanpantzarretik behera egiteko. Eta, kilometro gehiago egin eta aldapa gogorra igo gura dituztenek, Eskoriatzarako bidea hartuko dute, handik

Aitzorrotxera egiteko, Bolibarretik. Arlabanen, Besaidekoen kontura egongo dira jatekoak eta edatekoak, eta Jarindo aldera egingo dute gero, Kurtzetaraino joan eta handik Untzillara jais-teko. Arrasatera itzuli orduko 40 kilometro erakutsiko ditu kilometro-kontagailuak.

**OMENALDIA, LUIS MARI ETXABURURI**  
Bihar, Arrasate Errugbi Taldeak omenaldia egingo dio taldeko lehenengo presidente. izan zen Luis Mari Etxaburu zenari. Gai-xotasun bat medio, orain dela gutxi hil zen Luis Mari, baina taldeak gogoan izan gura du, besteak beste, Arrasatek errugbian eman zituen lehenengo pausoen testigu izan zelako; 1972an izan zen hori. Taldeko zuzendaritzan egotearekin batera, Luis Mari jokalaria ere izan zen, eta azken urteak beteranoen taldean egin ditu. Hala, biharko omenaldian (12:00etan, Garagartzan), Arrasateko taldeko senior eta beteranoei bi talde egingo dituzte, eta

euren arteko norgehiagoka egongo da ikusgai.

Eta taldekoek lerro hauek aprobetxatu gura dituzte, Etxabururekin jokatu zutenak, lagun eta familiakoak, eta errugbia gustuko dutenak omenaldira gonbidatzeko.

### MONDRAREN AZKEN NORGEHIAGOKA

Mondrak Mutrikun esango dio agur aurtengo denboraldiari; Arrasatekoek azkeneko 90 minutuak izango dituzte ahalik eta goren geratzeko. Zazpigarrena da Mondra (50 puntu), eta Trintxerpe puntu batera baino ez dago (51). Hori bai, atzetik talde mordera datoz, Mutrikun galduz gero, Arrasate aurreratu dezaketenak. Hortxe egongo da azken jardunaldiko gatz apurra.

Jokalariek deskantsua hartuko badute ere, Mondrako presidente berriak, Jose Luis Azkaratek, eta zuzendaritza berriko kideek lanean jarraitu beharko dute, datorren denboraldiko taldea prestatzen.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

HLB 108 - Saukelu Scream ..... 4-3

### PARTIDUAK

#### MAIATZAK 28, ZAPATUA. EPAILEAK

12:00: Betraye - Iritzu Tab. Antolatzaile

13:00: Saukelu S. - AT Celaya. Antolatzaile.

#### MAIATZAK 29, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: AC Surcos - Lasagabaster. Antolat.

13:00: You Know! - Dribling. Antolatzaile.

### SAILKAPENA

#### MULTZO BAKARRA

	P	J
1. Saukelu Scream	30	18
2. Betraye	28	18
3. You Know!	26	18
4. AC Surcos	26	18
5. Lasagabaster	24	18
6. Dribling	24	18
7. Iritzu Taberna	24	18
8. AT Celaya	22	18
9. Billy & The Cowboys	18	18
10. HLB 108	14	18
11. Fuxion	13	18
12. La Kuadrilla	13	18
13. Abokajarro	11	18
14. Manhattan Pippol	10	18
15. Tomahawk	10	18
16. Ekipo Aldeano	5	18
17. Irati Taberna	0	18
18. Torpedo Musakola	0	18
19. Goma2	0	18



## FINAL ZORTZIRENAK, ZUZENEAN

### HLB 108, ZALDIBARKO LEHENENGO KOPAKO TXAPELDUNA

Ikusteko moduko finala izan zen joan den astekoa: joko ikusgarria, gura beste tentsio, zaletuak gogor animatzen, jokalariai bero-bero (larregi, kasu batzuetan), eta Zaldibarren ikusle dezente. Merzitako txapelduna izan zen HLB, zeukaten eman zuten mutilek, baina Saukeluk irabaziko balu ere, merzimendu osoko txapelduna izango litzateke. Horrek erakusten du final parekatua izan zela. Epailak ere aipatzeko moduko lana egin zuen, horrelako norgehiagokan ez delako erraza txistua hartu, eta kantxara jauzi egitea (Hori bai, HLBkoek zutoinean jo zutenean, ez zen gol izan).

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

#### SASKIBALDIA

Mugarri Alkesa - Lasao altzariak

Juniorrak. Zapateria. 12:00. Musakolan.

Mugarri Alkesa - Gros Xake

Kadeteak. Zapateria. 10:00. Musakolan.

#### FUTBOLA

Mutriku - Mondra

Preferentea. Domekan. 17:15. Mutrikun.

Mondra - Antiguoko

Ohor. Gazteak. Zapateria. 16:30. Atxabalpen.

Segura - Arrasate

Gazteak. Zapateria. 16:00. Seguran.

Zarautz - Arrasate

Ohor Kadet. Zapateria. 10:00. Zarautzen.

### ESKUBALDIA

Bidasoa Irun - AGR Arrasate

Igoera fasea. Zapateria. 18:00. Irunen.

### BESAIDAKO MENDI ASTEA

Pou anaiei ikusentzutekoa

7parea7kontinente. Gaur. 19:00. Monterronen.

Mendi bizikletako bi irteera

Zapateria. 09:00. Musakolako kiroldegian.

### ERRUGBIA (ETXABURURI OMENALDIA)

Arrasateko jokalariai elkarren kontra.

Lagun artekoa. Zapateria. 12:00. Garagartzan.

### LEINTZ ESKOLAKO AZKEN JAIA

Eskola kiroleko jaia

Zapateria. 10:00. Laubiden.

**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
**ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14  
ARRASATE

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## JOSE LUIS ABUIN

kiromasajista - naturopata - akupuntorea



**Lokal berria :**

Musakolako Udal Kiroldegia - ARRASATE - 943 77 16 77

San Josepe 10 beheka D - ARRASATE - 943 77 01 33

20 urte baino gehiago zuen artean



ELKARRIZKETA

LUIS SAGASTA/JUANITO ARTZAMENDIREN OMENALDIKO ANTOLAKUNTZA TALDEKOA

# “Juanitoren lana gogoratzeko aproposa litzateke musika sariketa bat sortzea”

IKER BARANDIARAN

Juanito Artzamendiren omenaldia antolatzeko taldean buru-belarri dabil Luis Sagasta *Mane*. Omenaldiaren eta Juanitoren gainean egin dugu berba Luisekin.

**Noiz eta zelan ezagutu zenuen Juanito?**


1960 inguruan ezagutu nuen. Banekien Bandako zuzendaria zela, eta harekin pianoa ikasten hasi nintzen, Grupo San Juanen bizi zenean. Oso irakasle ona zen, baina ni ez nintzen oso ikasle fina. Bizpahiru urte egin nituen harekin.

**Gerora, zein harreman izan zenuen Juanitorekin?**

1977an Arrasateko Musika Eskolako presidente kargua hartu nuen, eta Artzamendi zen akademiako zuzendaria. Diru kontuekin larri genbiltzan, baina ilusio handia geneukan, eta oso oroitzapen onak dauzkatz. Orduko Juanito orkestrarekin hasita zegoen. Niri egokitu zitzaidan eskolaren beharretarako dirua batzea. Juanitok hainbat irakasle ekarri zituen: Alfredo Rodriguez, Manolo Carrasco... Baina materiala falta zen, eta oso garestia zen. Saiatzen ginen eskoletarako zituzten beharrak asetzen.

**Zelakoa zen Juanito?**

Ezagutu ez zutenek zuten irudia da gizon altua eta serioa zela. Notariotzan egiten zuen lan, eta horrek bazuen zeresana. Baina harekin berba eginez gero, konaturatzen zinen oso atsegina eta berriketaria zela. Barre asko egiten genuen Juanitorekin. Bes-



talde, oso langile fina zen. Lanerako ez zeukan ordutegirik. Behin baino gehiagotan gauerdian ohetik jaiki eta musika idazten jartzen zen. Eta musika izugarri bizi zuen. Gogoan daukat Londrera joan ginen baten, orkestrarako partitura liburu batzuk erosi genituela. Juanito liluratuta zegoen, liburua irakurtzarekin bat doinu guztiak entzuten zituelako.

*“Musikaririk kanpogera ez zedin, lanak instrumentu gehiagotara egokitzen zituen”*

**Zer nabarmenduko zenue Juanitoren lanetik?**

Batez ere, orkestra sortzerakoan erakutsi zuen indarra, eta zelako argi zeukan egin beharreko guztia. Horrez gain, hari-musikari harrobi handia sortu zuen. Gogoan daukat orkestraren alde egin zuen guztia, eta musikariak kanpo ez uzteko egin zituen ahalegin guztiak. Musikari gehiagok

parte har zezan, lanak instrumentu gehiagotara egokitzen zituen. Are gehiago, gazteak oso ondo moldatzen ziren Juanitorekin. Horretarako gaitasuna zuen.

**Zer zor dio herriak Juanitori?**

Ez dakit herria zorretan dagoen, baina salatzea da Udalak Artzamendiren seme Arrasateko Musika Eskolarekiko izan duen jarrera. Eskolak zailtasun asko izan ditu, eta Udalak ez du inoiz egoitza apropos bat egokitu. Ez da oraingo kontua, aspaldiko arazoa da. 1983an, eskola klaustroetan jartzeko aurre-proiektua aurkeztu genuen. Horrez gain, Zerrajerako bulegoetan jartzea ere eskatu genuen.

**Zer izan da zailena omenaldia antolatzeko orduan?**

Batez ere, koordinazio lana egitea, jendearen atzean ibiltzea, entseguak antolatzea... Azkeneko hiru hilabeteetan Beatriz Artzamendi dabil entseguak zuzentzen, baina horren aurretik Jose Ramon Vitoria ibili da guztia prestatzen. Hark ere lan izugarria egin du. Horrez gainera, Sonia Ortubaik musika arloa antolatu du: partiturak...

**Zuen asmoa da urtero Juanitoren aldeko ekintzaren bat egitea ala haren izena eta lana gogoan izango duen beste zerbait?**

Oraindik ez dugu ezer eztabaidatu eta halako ekimen bat Arrasateko Musika Eskolak bulztatu beharko luke, baina ideia ona litzateke Juanitoren izena duen musika sariketa bat sortzea: konposizioena, orkestra gazteena edo halako zerbait.

BEATRIZ ARTZAMENDI /JUANITOREN ALABA ETA MUSIKARIA

## “Harrigarria zen, lortezinak ziruditen erronkekin aurrera egiten zuen”

**Lan handia izan da omenaldi hori antolatzea?**

Duda barik, batez ere kontuan hartuta parte-hartzaile guztiak borondatez lan egingo dutela. Musikari profesionalen euren agendak egokitu behar izan dituzte, eta profesionalak ez direnek ere beste egin behar batzuk utzi behar izan dituzte omenaldian izateko. Horri guztiari batu beharko genioke ikasle ohi asko Arrasatetik urrun bizi direla. Baina esan beharra daukat horiek guztiak esku hartzeko egin duten ahalegina.

**Zu zeu konpositorea, musikaria eta zuzendaria zara, besteak beste. Horretan zeresan handia izango du etxean ikusi izan duzunak eta aita-aren ibilbideak, ezta?**

Bai, aitaren eragina erabakigarria izan da nire musika formazioan. Ez bakarrik irakatsi zidanagatik, musika eta herri hau maitatzen erakutsi zidako ere bai. Izugarria zen lan egiteko zuen gaitasuna: orduak eta egunak egiten zituen konposatzen, orkestratzen... Horrez gain, lortezinak ziruditen erronkekin aurrera egiten zuen. Baina batez ere nabarmenduko nukeena da edozeinek eskatuz gero beti zegoela laguntzeko prest.

**Musika Eskolako aspaldiko lagun askok bat egingo duzue. Eskolak oroi- men asko ekartzen dizkizu?**

Entseguetan bat egitea oso hunkigarria izan da. Berdinak ginen, lehen egiten genuena egiten, baina urte dezente



igaro dira. Entseguak bukatzean gaztaro hainbat kontu izan ditugu berba-gai. Sasoi hartan asko ikasi genuen, eta oso sasoi aberasgarria izan zen.

**Zer nabarmenduko zenue antolatzen duzuen egitarautik?**

Fauré-ren *Requiem* aukeratu dugu zoragarria delako eta iraganean guk geuk interpretatu genuelako aitaren zuzendaritzapean. Badakit hark lan hori miretsi egiten zuela. Gainontzeko lanak aitzak konposatutakoak dira. *Gogorapen* izan zen orkestrarako idatzi zuen lehenetarikoa. *Udalamendi* ere nabarmenduko nuke, gure herria eta gure musika zelana maite zituen laburbiltzen duelako. Amaiko ikuskizuna hunkiberatasunez josita egongo da.



## BOTEPRONTUEN

## Fernando Zabarte

## TXIRRITA JATETXEA

XABIER URTZELAI

Gesalibarren Fernandon aittek, Dionisiok, euken Ugalde tabernie txiki geratu zanienez pentsau euen taberna barrixe ipinttie. 1971n izen zan hori, eta Fernando soldauskie egin berri euen. Aittakin hasi zan tabernan lanien, eta gurasuek erretirau zienien, berak hartu euen negoziue.

**Txirrita: jatetxie, ostatue, tabernie...**

Aittek negoziue ipiñi euenien, Mondraguen ez euen holakorik. Oin, baiñe, jatetxe eta taberna moduen funtzionetan dou. Ostatue biherrien, oin egitten doune da habitaziñuek alkilau.

**Eta nundik dator ba Txirrita izena?**

Aitte oso bertsozalie zan, eta izen bat ipiñi biher jakonez, ba bertsozarixen izena elegidu euen.

**Sasoï baten, rock kontzertuek be egoten zien Txirritan.**

Bai, beheko lokalien. Hori jai-xetan egitten getuen, kanpuen hotz egitten euelako. Baiñe sekulakue zan, lan haundixe. Eta oin, gaiñera, auzuen gazte gutxi dau holakuek organizetako.

**Nungo jentie etorten da hona?**

Sasoï baten, kooperatibako arduradunak etorten zien; hamen negozio inportantiek egin die. Oin, barriz, konstrukziñokuek, ospittaleko langilliek, bisitak... Horreik astien ziher etorten die, menuek emuten dou-eta. Eguakotx eta zapatu gabetan, barriz, jente gaztie etorten da.


**Zein da zeuon espezialidie?**

Entsalada mistuek, esango neuke. Eta horrekin batera, bakallaue, txipiroiek...

**Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.**

Izen leike nagusixok lan egitteko orduen nahiko kontserbadoriek izetie, eta metodikuek. Alde horretatik, produkto mordue eukitten ez badou be, gustetan jat kalidadeko gauzak ofrezidutie.

**Zerek emuten dutzu begixetan min?**



X.U.

*"Neu erretiretan nazenien, alkilerrien ipiñi biher. Auzue ezin da taberna barik geratu"*

Lanien, ezerk be ez. Gustora nabil, lekue lasaixe da...

**Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?**

Transporte publikue. Hamengo ospitalera, adibidez, lau autobus besteik ez da etorten, eta ordu txarretan.

**Eta Gesalibarrei?**

Ez dakit ba... Jente gaztie auzuen geraketie, akaso. Horrekin batera, giro haundixuaue. Adibidez, Garagartzan, Belun inguruen-eta jentie ibiltten da, baiñe ez die honaño etorten.

**Eta ze dauko Mondraguek ona?**

Lana dauela, dirue dauela...

**Pelikula bat / Liburu bat/**

*"Neure kapritxuek, eguzkixe eta zerbezie. Tabernarixok kapritxo txikiñek eukitten dou"*

**Musika talde bat.**

Pelikulie *Alien* esango dot. Iku-si neuenien buruen geratu jaten, diferentie zan / *El Codigo Da Vinci*, mundu dana dabil hori leiduten / Ointxe eskuratu dot Benito Lertxundin rekopilatorixo bat. Tabernan ipintten dot, eta gustora entzuten dot. Hori ez da sekule be atzien geratuko.

**Kapritxo bat.**

Eguzkixe eta zerbezie.

**Bakaziñotan Mediterraneo aldera egingo dozu, hortan.**

Alacantera jueten naz urtero. Asko eskerketan dot eguzkixe hartzie, eta zerbezatko batekin bada, hobeto. Tabernarixok kapritxo txikiñek eukitten dou.

## NIREBIDAIAHURA/ Amaia Etxebeste

Mexikora / 2003ko uztailen

A skapena taldekoekin batera joan zen Amaia Mexikora, hango komunitate batera, brigadista. Hara joan aurretik, berbaldi batean izan zen, jakiteko euren jarrerak nolako izan behar zuen, zein egoeratan egongo ziren eta zer egin ahal izango zuten eta zer ez. Hala ere, formazio hori apur bat gehiago landu behar ko luketela uste du Amaiak: "Komeni da jakitea nora goazen eta zertara. Gure helburuak izan behar du hango egoera bizi, ikasi eta euren berri ematea. Hara ez goaz inori ezer irakastera, ez eta berbaldiak ematera ere. Ez diegu esan behar gauzak nola egin behar dituzten. Hori bai, gure presentziarekin inor babesten badugu, hobeto".

Mexikoko hiriburura iritsi eta handik San Cristobal de las Casas-era abiatu ziren: "Han berbaldi batzuk izan genituen, eta handik hartu genuen Selva Lacandona-rako bidea, La Realidad komunitaterakoa: "Komunitate batzuetan zapatistak baino ez daude, baina beste komunitate batzuetan, zapatistak eta Priistak edo gobernuaren aldekoak bizikide dira. Esan gabe doa harremana ez dela batere ona. Guk ikusita-koaren arabera, batzuek onartu egin dituzte gobernuak emandako hainbat fabore: argindarra... Eta trukean, informatzaile lanak egiten dituzte. Zapatisten iritziz, saldatuak dira". Amaiak egunero egin beharreko lanaren berri ere eman digu: "Gu ez ginen ibili militarren joan-etorriak zaintzen. Gehienbat, etxeko lanak egiten ibili ginen, hango emakumeekin batera. Egurra batu, sua egin, janaria prestatu... Horrekin batera, etxolaren bateko konpontzeko bazegoen, proposamena egiten genuen, horretarako baimena eskatuta".

Hango bizilagunekin, emakumeekin batez ere, izandako harremanaren gainean egingo digu berba Amaiak datorren astean. Ezin ahaztu, gainera, Marcos komandanteordea ezagutu zuela, eta hark barkamena eskatu zio- la, gainera.



*"Baimena eskatzen genuen proposamen bat egiteko"*

XABIER URTZELAI



"Komunitateetako inguruak ederrak dira, oihana bete-betean".

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea  
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta



UGARTE

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943-71 21 40





## ENARA BELOKI, JUDOAN, GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Eibarren egin zuten Gipuzkoako Judo Txapelketan maila ederra erakutsita eskuratu zuen Enarak lehenengo postua. Alebin mailan, zortzi kontrario izan zituen, eta borroka guztiak garbi irabazi zituen, 8 *nipon* eginda. Horretarako, Enarak gogor entrenatu behar izan du, besteak beste, argazkian azaltzen den Julio Gallego entrenatzailearekin batera. Gainera, ekainaren 4an hitzordu garrantzitsua izango dute Arrasaten, Judo Txapelketa antolatuko dutelako Musakolan. Antolatzaile lanetan ibiltzearekin batera, ezin asteroko entrenamenduak alde batera utzi.



## JABI LARRAÑAGAREN EZKON AURREKO JAIAN, ANTXOARIK EZ, BAINA LEGATZA, GALANTA

Argazkikoak dira Jabi Larrañaga *Harriketarra* eta lagunak, eta orain dela gutxi egin berri diote ezkon agurreko jai edo parranda, ekainaren 11n ezkonduko delako Susana Santor *Wilma*-rekin. Eta, parranda non egin, eta Ondarroan, Antxoa Egunean. Antxoa gutxi dagoela, eta hantxe joan ziren *Xanpo*, *Atxurra*, *Banpiro*, *Baltza*, *Mendi*, *Pates* eta konpainia, arazoak erremediorik

badaukan edo ez bertatik bertara ikustera. Bistan da antxoa askorik ez zutela ikusi, eta egia esateko, ordu batetik aurrera, ikusi, ikusi... Hori bai, legatza, behintzat, galanta harrapatu zuten; hori esan digu euretako batek, eta guk ez dugu dudan jarriko. Eta, arrainekin, edo arrain barik, Jabirendako eta Susanarendako, lagunentzat, zorionik beroenak!!!

**kelnara**  
banda zabala

**Goiena.net**  
Debagoieneko ataria Interneten

### Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net**: bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...
- **Hezkuntza**: matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia**: ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

Seinalea jaso dezaketen auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta**: Aozaratza, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza**: Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate**: Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga**.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76





AITOR LIZARRALDE

Erretiratuak deseaten egoten dira hitzordu horretan elkar ikusteko.

**OSPAKIZUNA/** Urteroko erretiratuen bazkari erraldoia

# 1.000 lagunetik gora batuko dira bihar, bazkaltzeko

IKER BARANDIARAN

**Bihar, zapatua, dute nagusienek urteroko hitzordua. Arrasateko erretiratu gehienak Musakolako kiroldegian mahai erraldoi baten bueltan jarriko dira. Berriketari egin eta ederto bazkaltzeaz gain, dantzaldia izango dute eta opariak banatuko dizkiete.**

SUDC elkarteak antolatzen duen ekimen horrek 40 bat urte egin ditu dagoeneko, eta urterik urte jende kopuru handiagoa batzen dute kiroldegian.

Berez egitaraua erakargarria da oso. 11:00etan, etxafuegoak jaurtiko dituzte egunaren berri emateko, eta kalejira egingo dute. 12:30ean, meza emango dute San Juan Bataiatzailearen elizan, hil diren erretiratuak gogoratzeko. Horren ostean, batzuek txikiteoa

egingo dute bazkaltzera joan aurretik.

Aurten ere antolatzaileek Musakolara joateko autobusak jarriko dituzte. 13:00etan irtengo dira Garibai kaletik, Abaroa erretiratuen elkartearen ondotik.

14:00etan egingo dute bazkaria Musakolako kiroldegiko kantxan. Jaki goxoak zerbitzatuko dizkiete, eta erretiratu bakoitzari opari bana emango diete. Horrez gain, herriko hainbat sal-

tokik emandako beste opari batzuk zozketatuko dituzte.

### BI NAGUSIENI OMENALDIA

Han batutakoan artean emakumezko eta gizonezko nagusien omenaldia egingo diete. Bi horiek opari berezia eramango dute etxera. Banaketa eta omenaldia egin ostean, dantza egiteko aukera izango da. Dantzaldiak iraungo du erretiratuen saltseroen gortuz eta gogoek iraun bitartean.

Zer esanik ez, bazkari horretara joateko izenematea itxita dago. Aurreko asteetan interesatuek erretiratuen elkarteetara edo udaletxera jo behar izan dute txartelak eskuratzera.

SUDCeko lagunek aditzera eman digutenez, 1.100 lagun inguruk eman dute izena, baina baliteke azkeneko egunean gutxi batzuk ez etortzea, egun makalagoa izateagatik-edo.


*“Bazkarira joaten diren bi arrasatear nagusienak omenduko dituzte kiroldegian”*

## LABUR

### Garoñako zentral nuklearra ikustera joateko txangoa egingo dute Uribarriko lagunek

Uribarriko erretiratuak beste txango bat prestatzen dabilza. Ekainaren 16an Araba eta Burgos artean dagoen Garoñako zentral nuklearra ikustera joango dira. 08:00etan irtengo dira Arrasatek, eta Villarcayon (Burgos) bazkalduko dute.

20 euro ordaindu beharko dituzte, eta ekainaren 7an zozkatuko dituzte txartelak. Eman izena lehenbailehen.



### Bakarrik bizitzearen gaineko berbaldia

Ekainaren 9an, bakarrik bizitzearen gaineko berbaldia egingo dute Uribarriko erretiratuen elkartearen. Gipuzkoako Eri-zaintza Eskolako lagunek emango dute, eta bakarrik bizi diren baliagarriak izan daitezkeen hainbat aholku emango dituzte. Besteak beste, zer jan, arazo baten aurrean zelan jokatu, eta abar aztertuko dute. 17:00etan egingo dute. //B.



**Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebeldun hizkiak

**OGARAN  
jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

## CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 ..... 620 12 48 43

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. .... 943 77 14 72

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegan ere bai) ... 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 ..... 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. .... 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA


- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H ..... 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22



EZETZASMATU



'ARRASATE ARGITAN' LIBURUA

Noiz sortu zuten Altunatarrek JMA enpresa?  
Arrastoa: 40-50eko hamarkaden artean izan zen.

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Berberana ardo gazte beltza**  
75 cl

**1,39€** 231 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ESPERANZA AGIRIANO**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Esperanza!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Uribarri, Garagartza eta Gesalibar** auzoek.

ERRETRATUZAHARRA

**Errugbi taldeak gogoan: Luis Mari Etxaburu**

**A**steburuan Arrasate Rugbi Taldeko Luis Mari Etxaburu jokalaria zenari omenaldia egin behar diote. Hori dela eta, antzinako argazkien tarte hau ere errugbi-zale eta errugbilari hura gogora ekartzeko erabili nahi izan dugu, besterik ez bada ere, argazki baten bitartez.

1983an ateratako horraiko argazki hori utzi digute horretarako.

Gure berriemaileak jakinarazi digunez, egun hartan, Arrasate Rugbi Taldeko jokalaria bati omenaldia egin zioten, Julian Gallori. Urte luzez Arrasateko errugbiaren *alma mater*-a izatearren omendu zuten Julian Gallo. Hala, Galloren sasoian jokatu zuteneko zenbait jokalaria elkartu eta lagun arteko partidua jokatu zuten, Iturripen. Argazkiak erakusten duen moduan, hantxe izan zen, beste errugbilari batzuen artean, Luis Mari Etxaburu bera ere, taldekidea omendu nahian.

Eta ikusten den moduan, oroitzapenerako argazkia ateratzeko ere



aprobetxatu zuten; jokalarien jantzi zuri-zuri eta garbiak ikusita, badirudi partidua baino lehen egin zutela hori.

Ezkerretik hasita, honako hauxe da argazkian azaltzen den errugbilari laukotea: Luis Etxebarria *Luison*, Luis Maria Mora, Julian Gallo eta

Luis Mari Etxaburu.

Azken horren gainean, besteak beste, gogora ekarri beharra dago Arrasate Rugbi Taldea sortu zenean, 1972an, lehenengo presidentea izan zela hura; baita jokalaria ere, urte dezentetan. Lan handia egin zuen.

Horren irudi bihar egingo dioten omenaldi beroa.

**Argazkia eta informazioa:** Joseba Maidagan.  
**Urtea:** 1983





## Ian etorkizuna gertuago duzu

Bergarako Migel Altuna institutuan, ian etorkizuna gertuago duzu!  
75 urte daramatzagu kalitatezko profesionalak gertu-gertutik hezten.

Ikasle-irakasle arteko harremana lantzen dugu, punta puntako azken teknologietara egokituta gaude eta gainera sekulako erraztasunak ematen dizkizugu zure ikasketak bertako zein atzerriko enpresetan praktikan jartzeko.



### AURRE MATRIKULA

Ekainaren 1etik 8ra

### MATRIKULA

Ekainaren 30etik  
uztailaren 6ra

#### GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastikoa eta Kautxugintza

#### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa (goizez eta gauetz)
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Plastikoa eta kautxuaren eraldaketa
- Administrazio kudeaketa



943 76 24 91

943 76 38 40

[www.imaltuna.com](http://www.imaltuna.com)

75  
urte  
hezten

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabal!



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai 1 • 20570 • BERGARA

## ASTE BERDEA' 05



## Aretxabaleta

### Maiatzak 31, asteartea HITZALDIA.

Gaia: "Jasangarritasunaren argi-ilunak, gaur eta hemen"  
Arratsaldeko 19:00etan Udaletxeko Pleno aretoan.  
Hizlaria: IÑAKI ANTIGÜEDAD. EHUko irakaslea.

### Ekainak 1, asteazkena HITZALDIA.

Gaia: "Nekazaritza ekologikoa"  
Arratsaldeko 19:00etan Udaletxeko Pleno aretoan.  
Hizlaria: TOMAS LARRAÑAGA.

### Ekainak 2, osteguna IRTEERA.

Gaia: "Zuhaitzak". Iturriondora irteera.  
Gidariak: ANGEL LOIDI eta FERMIN LEZETA.  
\*Kurtzebarri eta Almen guneko ikasleak (DBH)

### Ekainak 3, ostirala TAILERRA eta JOLASAK.

Birziklapen gaiarekin lotutako tailerrak eta jolasak.  
Arratsaldeko 14:30 - 16:30  
Lekua: Kurtzebarri eskolan.

### Ekainak 4, larunbata ANTZERKIA.

"Bakartxoren zapatilak" antzezlan.  
Goizeko 11:00etan Arizmendi ikastola. Basabeazpi gunea.  
Haur eta helduentzako.

### ARGAZKI LEHIAKETAREN ERAKUSKETA.

Gaia: "Ingurugiroa".  
Arratsaldeko 19:00-20:30. Udaletxe zaharrean.  
Lehiaketara aurkezteko arauak, Udaletxean eta Ikastetxeetan egongo dira.

### Ekainak 5, igandea

### ARGAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA.

Gaia: "Ingurugiroa".  
13:00tan sari banaketa izango da Udaletxe zaharrean.  
Lehenengo hiru irabazleentzako sariak egongo dira.  
\* Ondoren lunch-a egongo da.  
\* 12-16 urte bitarteko haurrentzako.  
Erakusketa. Egurdiko 12:00-14:00. Udaletxe zaharrean.





# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a

382. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: 55378/94

## Aste Berdea egingo dute martitzenetik domekara, herritarrak sentsibilizatzeko

MIRARI ALTUBE

**Martitzenean, maiatzak 31, hasi eta domekara bitartean Aste Berdea egingo dute. Udalak antolatu du lhobe sozietatearekin batera eta herritarrak sentsibilizatzeko du helburu. Iñaki Antiguiedad EHUko irakasleak eta Tomas Larrañaga base-ritarrak berbaldea egingo dute.**

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da ekainaren 5ean, domeka. Hala, Aste Berdea antolatu du Udalak Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren (Ihobe) laguntzarekin. Herritarrak sentsibilizatzeko eta ingurumenaren arazoak kontzientzia hartzea du helburu asteak.

### BERBALDI BI

Hainbat ekintza antolatu dituzte ume, gazte zein helduendako. Azken horiendako berbaldi bi egingo dituzte. Martitzenean, maiatzak 31, EHUko irakasle Iñaki Antiguiedadek jasagarritasun edo iraunkortasunaren argi eta ilunen gainean egingo du berba. Iritzi kritikoa dauka Iñakik, eta modan dagoen berba izan arren, haren esanetan samurragoa da iraunkorra zer ez den esatea.

Eguaztenean, ekainak 1, Tomas Larrañaga antzuolarra etorriko da nekazaritza ekologikoaren gainean berba egitera. Produktu ekologikoak lantzen ditu Tomasek, eta zein ezberdintasun dagoen aipatuko du.

### IRTEERAK ETA TXOTXONGILOAK

Ikastetxeetako gaztetxoendako irteera antolatu dute Iturriondoko parkera. Arkarazo auzora bidean dago Iturriondo eta espezie askotako zuhaitz eta zuhaixkak daude. Anjel Loidi eta Fermin Lezeta basozainaren eskutik bertako zuhaitzen berri jasoko dute eguenean. Umeek, osterak, tailerak eta jolasak egingo dituzte birziklatzea oinarri hartuta egubakoitz arratsaldean, Kurtzebarri eskolan.

Zapatuan, ekainak 4, *Bakartxoren zapatilak* txotxongilo emanaldia eskainiko dute: Imanol Urbietara zarautzar musikagilearen ipuin baten oinarritutako lanak hainbat gai lantzen ditu: etxearen arteko harremanak, lana, zaborteia, birziklatzea... Ume zein nagusiak hurreratu ahal izango dira Basabeazpi gunera.

### ARGAZKI LEHIAKETA

Argazki lehiaketa ere antolatu dute ikastetxeetan. 12 eta 16 urte bitarteko ikasleendako da, eta *Paisaiaren edertasuna eta ingurumenaren degradazioa* izango dute gai. Landaretzaren eta animalien kaltea islatzen eta salatzen duten argazkiak atera beharko dituzte. Ekainaren 2an, eguena, bukatuko da epea, eta zapatuan eta domekan erakusketa jarriko dute udaletxe zaharrean. Hain zuzen, domeka eguerdian banatuko dituzte sariak, eta ondoren luntxa egongo da udaletxe zaharrean datozen guztiendako.



Ume, gazte zein heldu bakoitzak bere ardurak izan behar ditu ingurumena zaindu eta babesteko orduan.

## Egitaraua

### MAIATZAK 31, martitzena

19:00: *Jasagarritasunaren argi-ilunak* berbaldia Iñaki Antiguiedad eskutik. Udaletxe oso bilkuren aretoan.

### EKAINAK 1, eguaztena

19:00: Nekazaritza ekologikoaren gaineko berbaldia Tomas Larrañagarekin. Udaletxe oso bilkuren aretoan.

### EKAINAK 2, eguena

DBHko ikasleak Iturriondora irteera.

### EKAINAK 3, eguaztena

14:30-16:30: Birziklatzearen gaineko tailerak eta jolasak Kurtzebarri eskolan.

### EKAINAK 4, zapatua

11:00: Txotxongilo emanaldia: *Bakartxoren zapatilak*. Basabeazpi gunean.

### EKAINAK 5, domeka

12:00-14:00: Argazki erakusketa udaletxe zaharrean.  
13:00: Sari banaketa. Ondoren luntxa.



**ANDRA  
MARI**

Aholkularitza

Fiskala

Kontablea

Juridiko/laborala

## 2004ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik



**FARMAZIENTXANDA**

ZAPATUA, 28  
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 29  
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

**TELEFONOAK**

**OROKORRAK**

- Almen ..... 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21
- Faxa ..... 943 77 18 54
- Basotxo ..... 943 77 09 81
- Euskaltegia ..... 943 79 21 68
- Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62
- Industrialdea ..... 943 79 62 80
- Institutua ..... 943 79 79 00
- Kirol etxea ..... 943 71 26 28
- Kultura etxea ..... 943 71 10 27
- Gazteria saila ..... 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40
- KZGunea ..... 934 79 94 44
- Liburutegia ..... 943 71 18 62
- Loramendi EE ..... 943 77 09 70
- Ludoteka ..... 943 79 05 81
- Mankomunitatea ..... 943 79 30 90
- Murrukixio ME ..... 943 79 93 74
- Musika Eskola ..... 943 79 36 50
- Osasun etxea ..... 943 71 19 59
- Otalora ..... 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42
- Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77
- Postetxea ..... 943 79 28 31
- Basabeazpi Ikastola ..... 943 71 21 18
- Taxi geltokia ..... 943 77 12 64
- Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62
- Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63
- Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALITZAINGOA**

Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

- SOS Deiak ..... 112
- Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00
- Ertzalintza ..... 943 79 71 99
- Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76
- Larrialdiak ..... 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00


# Haurrak eta gurasoak izango dira protagonista Haurren Astean

M.A.

**Haurren Astea antolatu du Kurtzebarri eskolak. Aste honetan bertan egin dituzte berbaldi batzuk eta datorrenean umeak izango dira protagonistak. Jolasak, ipuinak, irteerak... izango dituzte, eta arratsaldean gurasoendako dantza eta abesti emanaldiak.**

Haur Hezkuntzako ikasleen astea egingo dute Kurtzebarri eskolan. Adin horretan familia eta eskola dira erreferentzia umearentzako, eta horren gaineko berbaldiak izango dituzte gurasoekin.

Astelehenean, maiatzak 30, Juan Luis Martin psikologoak eta Ainhoa Manzano EHUKo irakasleak 2-5 urte arteko etapa. Heziketarako jarraibideak berbaldia egingo dute. 18:00etan izango da, eskolan bertan. Martitzen eta eguaztenean, ostera, 2 urteko gurasoendako familia eta eskolaren arteko harremanaren gainean egingo dute berba. 18:30ean izango dira bi berbaldiak lehenengo gaztelaniaz eta bigarrena euskaraz. Gurasoen kezka eta zalantza argitu guran antolatu ditu Kurtzebarri eskolak.



Dantza eta abesti emanaldiak egingo dituzte umeek gurasoen aurrean.

Haurren Astean gurasoekin batera umeak dira protagonistak. Hala, jolasak, irteerak, eskulanak eta beste horrenbeste ekinza izango dituzte egunean zehar, eta arratsaldetan, 18:00etan,

gurasoen aurrean dantza eta abesti emanaldiak egingo dituzte; baita 5 urtekoek zirkoa ere. Aukera paregabea daukate gurasoek umeek egiten dutena ezagutu eta ondo pasatzeko.



## Murrukixio garaile Euskararen Eguneko apustuan

Trikitilariak, gazta, sagardoa, bertsolariak, pailazoak, perkusio hotsak... Ez zen geratu inor etxean joan zen zapatuko Euskararen Egunean. 180 lagun elkartu ziren babarrunak jatera, eta ostean Trilkimailu taldearen antzezlanak irribarrea atera zuten guztiei. Sokatira apustuan Murrukixio gehiago izan zen, eta Gazte Ekimenari nagusitu zitzaion. Hurrengo urterako entrenatuta etorri beharko dira Gazte Ekimeneko kideak. / M.A.

**LABUR**

## Errioxara joateko izena emateko deia egin du Basotxok

Basotxo Zaharren Elkarrekin bidaiari antolatu du erretiratuendako Errioxara. Ekainaren 9an, eguna, izango da; lehenengo Logroñora joango dira Errioxako jakiekin osatutako feria ezagutzera, eta bazkalostean ardoaren museoan ikusiko dute Briones herrian. Izena emateko epea maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean egongo da zabalik, Basotxo elkartean bertan. Jende askok emanez gero izena bigarren autobusa antolatuko dute antolatzaileek.

## Edorta Agirre sukaldariaren berbaldia egunean

Edorta Agirre sukaldari eta idazleak *Euskal sukaldariaren antropologia* liburua aurkeztuko du, egunean, ekainak 2, 19:00etan, udal-tertxe zaharrean. Loramendi Euskara Elkarrekin gonbidatuta etorriko da. Edorta ez da berria idazte kontuetan; izan ere, hau baino lehen bakailaoaren gaineko liburua dauka argitaratuta, Andoni Luis Aduriz eta Santos Bregañarekin batera.

## Arropak erakutsi ditu Ivan Vaz diseinatzaileak

Ivan Vaz aretxabaletarrak berak diseinatutako arropak erakutsi zituen joan zen egubakoitzean Arrasateko Al Andalus elkarrekin antolatutako kultura astean. *Carmen* izena jarri zion arropa bildumari; izan ere, XIX. mendeko Andaluziako jantzetan oinarritutako bilduma da Ivanek egindako azkena. Arabako diseinatzaile gazteen lehaketan saria jaso zuen bilduma horrekin aurtengo udaberrian, eta apirilean Gijongo diseinatzaile gazteen lehaketan egon zen gonbidatu gisa.

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**Ezkutu TABERNA**

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**



# Almengo talde bat euskal jokoen finalean egongo da

M.A.

Gaztetxo bete zen Herriko plaza eguzten goizean. Euskal jokoen topaketa egin zuten, eta Almengo talde bat sailkatu zen. Gaur, egubakoitza, finala jokatu dute Zarautzen.

Kutzak antolatutako euskal jokoen topaketen kanporaketa jokatu zuten eguzten goizean Aretxabaletako Herriko plazan. 13 urteko gaztetxoak elkartu ziren hainbat jokotan parte hartzeko.

## EUSKAL JOKOAK

Arizmendi ikastolako Almen, Ferixaleku eta San Viator guñetakoak, Mesedetakoak eta Kurtzebarri eskolakoak elkartu ziren gure herrian eguzten goizean. Guztiak DBHko lehenengo mailako ikasleak ziren.

Euskal jokoak ezagutzeko helburuarekin 10:00etatik 12:00etara bitartean hainbat joko egin zituzten: sokatira, lokotxak, zaku saltoan, jende proba, zakua eramatea eta korrika. Bertsoak botatzea aukeran zegoen eta lotsak albora utzi eta lau taldek bota zituen. Auzolana ere jarrita zegoen egitarauan, baina azkenean ezin izan zuten egin denborarik gabe geratu zirelako.

## FINALA GAUR, ZARAUTZEN

Barreak, aupa oihuak eta jolas giroa izan ziren nagusi Herriko plazan topaketak iraun bitartean. Antolatzaileen esanetan garrantzitsuena ez zen irabaztea



Almengo eta Kurtzebarri eskolako hainbat aretxabaletar ibili ziren norgehiagokan.

euskal jokoak ezagutu eta elkarren arteko harremanak sortzea

*Euskal jokoak ezagutu eta elkarren arteko harremanak sortzea dute helburu topaketek*

baizik. Hala ere, egindako joko guztietan jaso zituzten puntuak parte hartzaileek talde onena hautatu beharra zegoelako. Almen guneko C taldea izan zen, hain zuzen, puntu gehien jaso zituena, 766. Talde hori gaur Zarautzen egongo da Gipuzkoako onenekin batera euskal jokoen finala jokatzeko. Irabazi edo ez ederto pasatuko dute euskal jolasak aitzakia hartuta eta helburua beteta geratuko da.

## LABUR

### Errasti anaiek eta Oion eta Uriartek norgehiagoka jokatu dute gaur 20:00etan

Deba Arroko pilota txapelketa bukatzeko bi jardunaldi besterik ez dira geratzen, eta gaur, egubakoitza, elkarren aurka daukate partidua Aretxabaletako bikote bik: Errasti anaiek Oion eta Uriartekin norgehiagokan. Elkarren aurka jokatu zuten azken partiduan aise irabazi zuten Errasti anaiek, hortaz, oraingoan ere favoritoak izango dira. 20:00etan hasiko da partidua.

### Odei Vazquez karate jokalaria Euskadiko eskola arteko karate txapelketara joango da

Odei Vazquez karate jokalaria aretxabaletarra Gasteizen egingo duten Euskadiko eskola arteko karate txapelketara joango da bihar, zapatua. Lehenengo aldiz hartuko du parte eta entrenatzaileen esanetan ondo pasatzea beste helbururik ez du.

Joan zen domekan, oster, Azkoitiko udaberriko txapelketan jokatu zuen Odeik Axel Lizaranzu talde kidearekin batera.

### Piraguak itzultzeko eskatu du Murrukixok, triatloi egunerako behar dituelako

Murrukixo Mendizale Elkarteak Urkulun dituen piraguak itzultzeko deia egin die erabiltzaileei. Ekainaren 2rako, eguena, 10 piraguak bere lekuan izatea gura ditu, hilaren 4an, zapatua, Debagoieneko triatloia Urkulun hasiko dutelako. Triatloiko antolatzaileen eskuetan utziko dituzte aipatutako piraguak.

## PARTIDUAK

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Bergara-UDA

Preferentea.

Domeka. Bergara.

Gainerako taldeek bukatu dute liga.

### PILOTA

Errasti-Oion/Uriarte

Egubakoitza. 20:00. Iturrigorri.

### FUTBOLA

UDA 2 Oiartzun 0

Preferentea.

Urola 1 UDA/Arizm. 0

Lehen mailako gazteak.

UDA/Arizm. 3 San Patricio 0

Lehen mailako kadeteak.

Tolosa 1 UDA/Arizm. 3

Infantil ohorezko maila.

UDA 1 Antiguoko 2

Alebinak.

Almen/UDA 1 Mondra 3

Emakumezkoen liga (igoera).

### PILOTA

Deba Arroko Pilota Txapelketa

Uriarte/Oion 22-Elgoibar 15

Errasti anaiek 22-Bergara 3

Lasag./Alzola 21-Arrasate 22

**SANER**

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70

IAUSQIKO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**Dorleta taberna**

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

**Jauregi Okindegia**

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

TABERNA

**ARLUTZ**

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

**Iber**

★ Loteria ★  
\* Paper denda \*  
\* Liburuak \*

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**O R L A**

Herriko plaza z/g ARETXABALETA



## ATREBENTZIAEZPADA/ Parranda egunetan apurketak egiten daue herrixen. Ze pasetan da?



**PILI AGIRRE**  
Jubilaue



**FRANCISCO JAVIER CORRES**  
Langillie




**ELENA ERASO**  
Langillie



**MANUEL ABRIL**  
Jubilaue



**VIRGINIA MORALES**  
Langillie



**JAVIER MANCHO**  
Langillie

Indder larrei daukiela gaztiek gabetan, eta gero egunez lo. Lehen zintzuauek gizen eta egunez egitten gittuen parrandak. Jentie, gainera, ohittu egin da; lehen tranquilla bizi gizen.

Ez dakit ez dakixien edaten edo... Dana dala, gaztetzuek lotsabako xamarrek die. Ez dakit zer egin leikien, zenbat eta kontrol gehixau okerrau izengo dalako. Heziketa apur bat biher daue.

Ni neu ez naz konturetu ezertaz, baiñe jentiek larrei edango dau. Hala eta guztiz, ez dakit zeatik halako agresibidadie... Multak jarri biher edo udaltzainen bat gabetan zainketan.

Gauzak apurtute pasetan daue ondo, antza danez. Ez dakit larrei edaten dauen edo ez dakixien beste modu baten ondo pasetan, baiñe horrekin ez da ezer lortzen. Irtenbidie... nik badauket.

Gaztiek ez daukie beste zeregiñik eta parrandan apur bat edaten dauenien apurketak datoz. Jarrera kontue dala uste dot; hortan, eurak ez badie konturaketan, gatxa barrero ez pasetie.

Ez daue beste zeregiñik eukiko edo neskek falta ligitako. Euren ondo pasetako modue dala uste dot, beste barik. Gaurko gaztiek 12 eta 13 urtekin edozer gauza egitten daue.

### TXALOAKETATXISTUAK




**TXISTUAK TXIKIZIOAK BERRIRO** Antza denez ez dakigu parrandan egiten apurketarik egin barik. Hori frogatzen dute, behintzat, joan zen zapatu gauean egindako txikizioek: Lausitta kaleko zuhaitzak apurtuta (zenbatgarren aldiz?), edukiontziak kale erdian botata, zakarrontziak apurtuta... Udalak ordainduko ditu, noski, eta guk bitartean egin dezagun gura dugun guztia. / M.A.

### ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

**Galartza auzoko eliza berritzen hasi ziren**

Galartzako Santa Luzia eliza zaharberritzen hasi ziren, eta uztaila bitartean irauñ zuten lanek. Hormak berdindu eta margotu zituzten, elektrizitate sarea egokitu, egurra bistaratu eta harlandua agertu zen lekuan gaineko margoa kendu eta kanporatu. Elizpea ere txukundu zuten.



### ASTEKODATUA

**25**

#### LAGUN EGON ZIREN TOKIKO AGENDA 21EN BILERAN

Martitzenean egin zuten Tokiko Agenda 21en gaineko bigarren bilera. 25 lagun inguru elkartu ziren, eta etxean betetzeko fitxak eraman zituzten. Hurrengo bilera ekainaren 14an egingo dute.

### BESTEKEESANA

**“ Erronka nagusia herrian euskararen normalizazioa lortzea dugu eta horretarako gazteengan eragitea ezinbestekotzat jotzen dugu Loramendi Euskara Elkartearen. Bestalde, etorkinen gaia ere lantzen hasi beharrekoa gaia dela uste dugu eta helburu nagusira heltzeko aurrerantzean ildo honi ere helduko diogu.**

**LARRAITZ IÑURRATEGI**  
‘Asteleheneko Goienkaria’/05-05-23

**Ondo iruditzen zait jokalaria saltzea, baina etxeok mantentzeko. Del Hornoren diruarekin jokalaria garrantzitsuak hemen gelditzea suposatuko badu, ongi etorria izan dadila Athletic egin gura duen salmenta.**

**MATEO**  
‘Asteleheneko Goienkaria’/05-05-23

### HERRITARRENBERBAK/ Jon Molina



#### Gainbehera

**G**ure mendebaldeko gizartearen ezaugarri nagusienetako bat, iraganak oinordetzan utzi dizkigun estruktura instituzionalen gainbehera da. Gure aurrekoei mundua eta bizitza ulertzen lagundu zien ideologia, erlijio eta pentsamendu sistema handiek gure garai-kideei ezer gutxi esaten dietela gauza jakina da. XX. mendean hainbeste itxaropen piztu eta hainbeste milioika pertsona mobilizatu zituzten ideologia eta sistema filosofikoak (marxismoa, faxismoa, kristautasuna bera...) Egipto zaharreko mitoak bezain arrotzak eta urrutikoak gertatzen zaizkie gaur egungo gizon-emakumei, eta ondorioz, ideologia nahiz mundu-ikuskera horiek zaintzen eta gordetzen dituzten erakunde eta antolaketak antzinateko fosilak besterik ez dira askorentzat.

Egoera honetara, ordea, ez gara bat batean eta hala beharrez iritsi. Bizi duten krisi egoera, neurri handi batean, egitura horien beraien erantzukizuna da.

Gure herrian ere ez zaigu horren guztiaren adibiderik falta. Nola ez dugu bada, politikagintzaren gainetik interesa galduko, politika munduak eskaintzen dizkigun ikuskizun tamalgarriak kontutan izaten baditugu?

Parlamentuko mahaiaren presidentea aukeratzeko Euskal Autonomi Erkidegoko Legebiltzarrean ikusi berri ditugunak edonor nazkatzeko modukoak izan dira. Herritarron eguneroko arazoak konponetzen saiatzeaz gain, gobernu erakundeek eta alderdi politikoez

badute, niri iritiz, egin behar pedagogiko bat ere. Gure politikariek ezin diezagukete erakunde publikoenganako konfiantzarik eskatu, erakunde horiek beraien interes motzen jolasleku bihurtu ondoren.

Legealdi berriarekin aro berri bat hasi dugula behin eta berriz errepikatzen digute. Gure ordezkari politikoez erakundeenganako errespetu gehixeago erakutsiko balute ez lukete aurrerapauso txikia emango.

**“Gure politikariek ezin diezagukete erakunde publikoenganako konfiantzarik eskatu”**

**Aretxagazeta**

Durana 11  
20550 ARETXABALETAN  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube.

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZALEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a / 210. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarrigoiena.com • Lege gordailua: SS200/99

**EUSKARA/** Eskoriatzako kale erabileraren neurketa aurkeztu dute

## Udalerrian egiten dituzten 100 elkarrizketetatik 33 euskaraz dira

IKER BARANDIARAN

**Soziolinguistika Klusterra enpresak euskararen erabilera aztertu du Eskoriatzan. Jasotako emaitzen arabera, euskararen erabilera handituz doa, eta umeen presentziak eragin handia dauka. San Pedro auzoan batu dituzte emaitza txarrenak.**

Herrian egiten diren hamar elkarrizketetatik hiru baino gehiago euskaraz egiten dituzte. Hori ondorioztatu du Soziolinguistika Kluster enpresak egin duen azterketak. Apirileko hiru egunetan egiten dituzte neurketak, eta behaketa sistema erabili dute. Hau da, ez diote inori galdeketa egin, eta inor konturatu barik, herriarrek zer hizkuntzatan berba egiten duten jaso dute.

Neurketak herriko hiru zona nagusietan egin dituzte: erdigunean, Goikokale eta Dorleta inguruan eta San Pedro auzoan. Horrez gain, azokara eta Unibertsitate ingurura ere jo dute.

### **BIZTANLEEN %51 NEURTU DUTE**

Soziolinguistika Kluster enpresak biztanleen %51 neurtu du, hau da, 1.949 lagun. Aurreko urteetan egindako neurketetan baino jende kopuru handiagoa. Horien



Soziologia Kluster elkarteko Larraitz Garmendiak aurkeztu zituen azterketaren emaitzak.

artean honako taldeak bereiztu dituzte: umeak (2 eta 14 urte bitartekoak), gazteak (15 eta 25 urte artekoak) eta adinduak (65 urtetik gorakoak).

### **SAN PEDRON BEHERA EGIN DU**

Soziolinguistika Kluster elkarteko Larraitz Garmendiak azal-

*Beste adin taldeek  
umeekin batera  
badaude euskara  
askoz gehiago  
erabiltzen dute*

dutakoaren arabera, erdigunean eta Goikokale inguruan erabilerak gora egin du, eta 1997tik gaur egunera arte erabilerak izan duen beheranzko joera aldatzea lortu dute. Aztertutako hiru zonen artean, San Pedro da erabilera baxuena daukana, eta gero eta euskara gutxiago egiten dute auzo horretan.

### **GAZTEEK, APURTZO BAT BEHERA**

Adin taldeei dagokienez, honako emaitzak batu dituzte: umeen %47k erabiltzen dute, gazteen %39k eta helduen %22k, hain zuzen ere. Hala ere, nabarmendu zuten erdigunean gazteek apur bat behera egin dutela; eta umeek, helduek eta adinduek, berriz, gora egin dutela. Hau da, azken horiek bilakaera positiboa izan dutela.

Kontuan hartu behar da 1997an eta 2001ean egindako neurketetan erdigunea bakarrik aztertu zutela. Horregatik, bilakaera aztertzerakoan erdigunea bakarrik hartu dute kontuan.

Bitxikeria moduan aipatu beharra dago neurketaren arabera gizonezkoen %47,4k euskara erabiltzen dutela. Emakumezkoen artean, berriz, %37,1ek.

Horrekin lotuta, konturatu dira umeen eragina oso garrantzitsua dela. Hau da, beste adin taldeekin batera umeen bat badaude euskararen erabilera askoz handiagoa da. Hori horrela gertatzen da, nahiz eta berba egite-rakoan umeei ez zuzendu. Hain zuzen ere, gazteek, helduek eta adinduek umerik ez dagoenean %17,4 erabiltzen dute euskara. Baina eurekin umeen bat badaude %35,9k euskara erabiltzen dute.

## Denboraldia bukatzeko, hiru taldek areto futbol txapelketa

I.B.

**Eskoriatzako areto futbol taldeak, denboraldia bukatzeko, hiru talderen arteko txapelketa antolatu du. Bihar, zapatua, egingo dute, 18:00etan. Denboraldia bukatzeko modu bikaina.**

Eskoriatzako areto futbol taldeak ahaztu ezinako moduko denboraldia izan du. Joan den denboraldian Euskal Ligara igo ostean, aurt-

goan bigarren gelditu da eta, hala, lehen nazionalera egin du jauzia.

### **HERRITARREN ETA UDALAREN BABESA**

Oraintsu bukatu den denboraldian herritar askok eman diete babesa, eta Udalak euren alde egin du. Joan den domekan, Udalak omenaldia egin zien. Osoko bilkuren aretoan ekitaldia egin zuten, eta alkateak taldeko lagunei plaka bana eman zien. Orain, taldekoek atsedean hartuko dute, baina horren aurretik, denboraldia buka-

tzeko, txapelketa berezia antolatu dute. Bihar, zapatua, hiru talderen arteko areto futbol txapelketa egingo dute kiroldegian. 18:00etan izango da, eta honako taldeek jokatuko dute: Gasteizko Carniceria Sanz (lehen nazionalen jokatzeko du), Gernika eta Eskoriatzak. Taldekoen esanetan, denboraldia bukatzeko modu polita da: "horrela denboraldia apur bat luzatuko dugu, zaleek partidua politikoki ikusi dituzte, eta gonbidatuz gehiago ikasi ahal izango dugu".



Joan den asteko ospakizunarekin ez dute denboraldia bukatu gura izan.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**AXTOKIREN AGENDA**

**EKAINAREN 3AN EGINGO DUTE BATZAR OROKORRA**

Datorren egubakoitzean, ekainaren 3an, egingo du batzar orokorra Axtroki euskara elkarteak. Bazkide guztiei gonbidapena egiten die hara jo dezaten. Horrez gain, elkarteak barkamena eskatu gura die, aurretik batzarraren hitzordua maiatzaren 26rako egin zutelako. Kultura etxeko hitzaldi aretoan egingo dute, 19:00etan. Hainbat gai izango dituzte berbagai.

**TOKI ALAI TABERNA**

**Karajiloetan espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

**AZKOAGA ESTANKOA**

943 71 48 77  
Zure Zerbitzura

**Gaur, egubakoitza, filma eta helduendako ipuinak**

I.B.

**Gaur, egubakoitza, ez da aspertzeko astirik izango herrian. Amuska emakumeen elkarteak *Las chicas del calendario* umorezko filma eramango du kultura etxera. Udalak, berriz, Pep Bruno ipuin kontalariaren saioa antolatu du Unibertsitateko aretoan. 22:30ean izango da saio hori.**

Amuska emakumeen elkarteak ekitaldi polita antolatu du gaurko, egubakoitza. *Las chicas del calendario* filma emango dute kultura etxean, 18:30ean.

Komedia barregarri hori Nigel Cole ingelesak zuzendu du (aurretik, *El jardín de la alegría* umorezkoa egin zuen). Chris eta Annie erretiratuak Ingalaterrako herri txiki baten bizi dira. Bietako baten senarra leuzemiaz hilko da, eta bi emakumeek herriko ospitalerako dirua batzea erabakiko dute. Horretarako, egutegi bat egitea adostuko dute. Herriko emakume erretiratuak biluzik posatuko dute, eta egutegiak izugarriko arrakasta izango du.

Aktore ezagunek lan egiten dute film horretan: Helen Mirren (*Gosford park*, *Flower power...*);

Julie Walters (*Harry Potter*, *Billy Elliot...*); eta Linda Bassett (*Las horas*, *Beautiful people...*), besteak beste.

Filmaren ostean, horren gaineko solasaldia egingo dute Ana Larrieta psikologoarekin batera.

Bestalde, ekainaren 18tik 19ra bitartean Amuska elkarteak Segovia aldera txangoa egingo du. Bazkideek 100 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkide ez direnek, berriz, 110 euro. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena kultura etxean.

**PUNTA-PUNTAKO IPUIN KONTALARIA**

Eguna umorez eta gustura bukatzeko, beste emanaldi bat izango da egubakoitzean. Udaleko Kultura Sailak Pep Brunoren ikuskizuna antolatu du unibertsitatean, 22:30erako.

Bruno Guadalajarakoa da eta eskola handia dauka ipuinak kontatzen. 1994an hasi zen zeregin horretan eta ordutik hona ez du atsedunik hartu. Espainiako Estatuan, Hegoamerikan eta Portugalen ibilia da. Horrez gain, umendako ipuinez osatutako liburua argitaratu izan ditu.

Berak asmatutako ipuin sorta kontatuko die helduei, eta ordu eta erdiko emanaldia izango da.



Saritutako esaldiekin pankartak eta pegatinak egingo dituzte jaietan.

**San Pedrotarako esaldi proposen bila dabil Udala**

Udaleko Euskara Sailak abian jarri du San Pedro jaietarako VI. Esaldi Lehiaketa.

Lehiaketa 13 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago, eta ezinbestekoa izango da hiru eta bost lagun arteko taldeak aurkeztea. Talde bakoitzak gura dituen esaldi guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Hala ere, komeni da esaldi edo leloak jaiak ondo pasatzera gonbidatzea; ligatzekoak ere

izan daitezke; eta aproposa izango da jaiak, euskara eta gazteak batzea. Bestalde, ez dituzte onartuko neurritz kanpoko kontsumoa ezta jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak.

Ekainaren 5a baino lehenago aurkeztu beharko dira lanok udal etxean edo kultura etxean. Talde irabazleak afari bat irabaziko du, eta sari txikiagoak ere emango dituzte.



**Eskolen arteko bertso jaialdia**

Eguaztenean, Luis Ezeiza eta Almen ikastetxeetako ume eta gaztetxoek bertso jaialdia egin zuten Arizmendi Ikastolako Almen gunean.

Azkeneko hiru urteotan hainbat ikastetxetan ahozko-tasuna eta bertsojaritza tailerra lantzen dabilta. Horien artean, aipatutako bi eskola horiek. Joan den urtean, Luis Ezeizan batu ziren eta jaialdia egin zuten. Eta, aurten, Almenen zuten hitzordua. 120 gaztetxok esku hartu zuten eta koplak eta bertsoak abestu zituzten. /AMAGOIA LASAGABASTER

**LABUR**

**Dorletan egin beharreko lanen erakusketa**

Dorleta auzoaren eraberritzearen gaineko proiektua erakusgai jarriko dute eguenetik, hilaren 2a, ekainaren 12ra bitartean.

Kultura etxean jarriko dute, eta honako ordutegia izango du: astelehenetik egubakoitzera bitartean, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu eta domeketan, 11:00etatik 13:00etara.

Horren ostean, ekainaren 13an, alkateak, Hirigintzako Josu Ezkurdiak eta Injelan enpresako ordezkari batek berbaldia egingo dute, 18:00etan.

**Txalaparta taberna**

Aranburuzabala 25  
ESKORIATZA

SALON DE BELLEZA  
OSASUNA ETA EDERGINTZA  
**DORLETA**

Aranburuzabala 22, behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

TXAPA, MARGOIA eta MEKANIKA

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko maiatzaren 27a / 152. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Lau dirulaguntza mota eskatzeko epea zabaldu dute

UBANE MADERA

Musika ikasteagatik, eskolara joateko garraiorako, UEUko eskoletara joateko eta euskara ikasten ibili direnendako dirulaguntzak eskatzeko aukera ematen du Udalak.

Musika ikasteko laguntzak eskatzeko, hiru baldintza bete behar dira: Aramaion erroldatuta egotea, Arrasateko Musika Eskolan matrikulatuta egotea eta langabetua izatea.

### ESKOLA GARRAIORAKO

Bestalde, eskola garraiorako dirulaguntzak honako lau ikasketa mota egiten dabilzanek eska ditzakete: DBHkoek (Arrasateko Institutuan dabilzanek izan ezik), HSAOGkoek, Erdi eta Goi mailako heziketa ziklokoek eta unibertsitateko ikasleek.

Bi laguntzok eskatzeko aurkeztu behar dira matrikulazio orria eta banketxeko kontua. Eskerak ekainaren 24a baino lehen egin behar dira, udaletxean.

### UEU-RAKO LAGUNTZAK

Horrez gainera, Udako Euskal Unibertsitatera (UEU) joaten dire-



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Musika ikasteko ematen duten dirulaguntza Arrasate Musikalen dabilzanendako da.

nendako dirulaguntza deialdia ere egin du Udalak. Irailaren 15era arteko epea dago eskaerak egiteko. Besteak beste, ordainagiria, programa eta partehartze ziurtagiria aurkeztu behar dira, udaletxean. Udalak matrikularen %80a ordainduko du.

### EUSKARA IKASTEAGATIK

Bukatzeke, euskaltegietan euskara ikasteagatik ere eska daitezke dirulaguntzak udaletxean. Kasu horretan ere, matrikularen %80a ordainduko du Udalak. Uztailaren bukaera baino lehen eskatu behar dira laguntza horiek.



DEIANE ARRIETA

'Andoni' txahala, jaino eta gutxira; hiru apatx dituen izter lodia du atzeko aldean.

## Txahal berezia jaio da Iturri-Oste baserrian

DEIANE ARRIETA / UBANE MADERA

Sorpresa galanta hartu zuten joan den astean Iturri-Ostekoek, baserrian jaio zaien txahala ikustean: arra eta emea da, biak batera, eta hanketariko bat gainerakoak baino dezente handiagoa du.

Horrez gainera, hanka berean hiru apatx ditu. *Andoni* izena ipini diote. Haren jabeak, Andres Altunak esandakoaren arabera, ahalegina egingo dute *Andoni* aurrera ateratzen eta sendotzen. Albaitariak

ikusitakoaren eta ondo zegoela jakinarazi zien. Zutzeko saiakerak egin zituen eta biberotik edan zuen. Baina, guzti-guztia ez da egoten borondate onaren esku. Izan ere, malformazioekin jaiotzen diren animalietako askok, zailtasunak izaten dituzte aurrerago. "Askotan tripa barruan zerbait izaten dute... Ezin izaten da jakin". Hala, hori gertatuz gero, askotan animalia berez akabatzen da edo akabatu egin behar izaten dute.

Kontuak kontu, bien bitartean Iturri-Ostekoek ondo zainduta gordeko dute *Andoni*.



## Aramaioarrak Pirinioetan gora eta behera

Joan den asteburuan, Orixol Mendi Elkartek antolatuta, hamahiru lagun Pirinioetan izan ziren. Gabarditon jaitsi ziren autobusetik eta Bisaurin mendian gora egin zuten. Bisauringo tontorrean atera zuten irudiotako argazki hori. Halaber, kontatu digute Bisaurinetik Lizarako aterpetxera jaitsi zirela, gaua pasatzeko eta biharamunean, eguraldi txarra zegoela-eta, planak aldatu eta Frantziako Somportera joan zirela, lau-pabost orduko ibilaldia eginez. /ORIXOL

## LABUR

### Astelehenean, KZGunean, Euskara Ziberespazioan

Euskarak interneten duen pisua aztertuko dute datorren astelehenean, KZGunean. Besteak beste, web orri mordera ikusiko dituzte, guzti-guztiak euskaldunak. Interesa duenak astelehenean bertan hara joatea nahikoa du. 11:00etatik 13:00ak arte landuko dute gai hori. Edozelan ere, KZGunean bera 09:00etan zabalduko dute. Internet behar duen edozeimen eskura. Aitor Madrid tutorea hantxe izango da, zalantzak argitzeko eta ordenadorea erabiltzen laguntzeko.



ELKARRIZKETA

JAVIER ESPAÑA/MEDIKUA

“Hiri-giroko guneekin konparatuta, osasuna eta bizi-kalitatea hobeak dira Aramaion”

UBANE MADERA

**H**erriko medikua dugu oraingoan berba-lagun. Hogei urte baino gehiago daramatza medikuntzan, hiru urte eta erdi Aramaion; kontsulta pasatzen, berriz, bi urte eskas. Karmen Amondo erizaina eta biak dabilta lanean Aramaion:

**Aramaion zelako osasuna dago?**

Orokorrean, ona; bestelako lekutako modukoa, ez hobe ez okerragoa. Bizi-ohiturei dagokienez, edozein baserri-gunetan moduan, txerri-hilketa sasoiari jende guztiak galtzen du oreka: dietak, kolesterola, diabetea... Dena desorekatzen da, baina bueno. Eta hiri-giroko guneekin konparatuta, osasuna eta bizi-kalitatea hobeak dira Aramaion. Hori bai, era berean gertatzen dena zera da: bizi-kalitatea hobe denez, pertsona nagusi asko dago. Eta horrek dakar patologia ugari izatea. Bizi-esperantza handitzean, patologia gehitu egiten dira.


Bestelako baserri-guneekin konparatuz gero, berriz, duen desberdintasunetako bat da uraren iodo kantitatea. Kontua da leku bat zenbat eta gorago egon, hango urek duten iodo kantitatea desberdina dela eta horrek boziora eragiten dituela. Esaterako, nahiz eta Arrasateko horren gertu egon, Arrasaten tiroide patologia gutxiago dago. Aramaion, oraindik asko dago. **Eta zein da irtenbidea?**

Analisiak gehiago zaintzea. Ohiko analisietan ez da egiten tiroideen kontrola; hemen, egiten dut. Hala, jende gehiago dut zainduta. Egin behar dena da zainduta. **Aramaioko gaixotasun komunenak?**

Bestelako lekutako berberak. Arrasateko mediku-taldean nago eta han komentatzen ditugu patologia guztiak, eta Aramaion besfe lekuetan bezala da. Akaso patologia kardiako gehiago dago, arritmia kardiakoak; baina hori da jende nagusi gehiago dagoelako. Esaterako, *Sintron* medikamentu antikoagulatzailea inguruan baino gehiago erabiltzen da hemen. Eta lehen esandako moduan, boziora endemikoa da Aramaion. **Zenbat aramaiotar datoz zuzana?**

30 bat lagun egunero; Arrasaten 30-40 izaten dira. Horrela esanda, badirudi Aramaion gaixo larregi dagoela herri txikiagoa dela kontuan hartuta, baina hori gertatzen da Aramaion errazagoa delako hona etortzea. Astean 150 bat gaixo izaten ditugu. **Gizonak ala andreak gehiago?**

Emakumeak. Gizonak gehiago agoantzen du; gutxiagotan joa-



“Aramaioko bizi-kalitatea hobe denez, pertsona nagusi asko dago”

“Nahiz eta baserri-giroan bizi, askok hirietan lan egiten dute; ohiturak berdintzen doaz”

“Aramaion, ez erretzaileen artean, biriketako patologia Arrasaten baino askoz txikiagoa da”

ten da medikuarengana eta emakumeak baino desoreka handiago izaten du. Gizonekiko zaintza txikiagoa da.

**Eta adinari dagokionez?** Gehien 60tik gorakoak etortzen dira. Gazteak oso gutxi. **Nahiko pertsonal eta material dago Aramaion?** Bai. Larrialdi bati aurre egiteko nahikoa dugu.

**Udaberria = alergiak. Zer egin?** Geroago eta gehiago daude; lehen, katarro eta infekzioetat jotzen genituenak gaur egun badakigu alergiak direla. Baserri-gunetan, graminea sasoiari asko izaten dira, batez ere, atzematen ditugu gaixo gehiago. Alergien kontrako tratamendua eta katarroen kontrakoa antzerakoa da. Bestela, alergiari aurre egiteko, egun osoan kanpoan ibiltzea saihesten ahalegindu behar da, automobileko leihatilak jaitsi barik gidatu, hautsari alergia dionak, garbitasuna zaindu... Askok saihesten da horrela. Gazteen kasuan, berriz, bestelako urteetan katarroa agoantzen ibili direnei komeni zaie etor-

tzea eta kasua aztertzea. Badira bakunak, eta hobe da lehenbailehen ipintzea, hobe jasateko alergia, edo antiestaminikoak hartu... Hala bizi-kalitatea hobetu daiteke. **Geroago eta medizina alternatibo gehiago dago; ohiko medikuntzarekin bateragarriak dira?**

Gertatzen dena da medizina tradizionalan gabiltzanok ez dakigula ezer homeopatek-eta ematen duten farmakoen gainean. Ez dago ezer ikertuta, ez dugu inolako *vademecum*-ik... ez dakigu zein osagai dituzten. Horrek ez du esan nahi txarrak direnik, baina guk ezin dugu esan ez onak ez txarrak direnik. Horrenbestez, guk medikamenturen bat emanez gero, ez dakigu gaixoarengan interferitu egingo duen edo ez, ez dakigulako bere aldetik zer hartzen dabilen. Medizina haiekin ezin dugu jardun, ez dugu-eta inolako harremanik. Horrez gainera, esan beharra dago enfrontamendu handiak ere izaten direla. Esaterako, medizina naturalak desegituratu egiten digu guztia.

Badago jende gaztea gure medizina baztertu egiten duena, bakunak... Eta kaltea euren dako eta guretako da, epidemia-edo zerbait gertatzen bada... Dena dela, oro har, ez gara gaizki konpontzen, baina ez dugu ezer ezagutzen. Eta euren ere ez dute ahalegin handirik egiten guri informazioa ematen. Ez dugu harremanik.

**Etorkizun beltza ei datorkigu: kolesterola, bihotzekoak...**

Gaur egun, adin ertainekoak lehen baino kalitate hobearekin bizi dira, eta geroago eta ohitura hobeak dituzte... Hori bai, 50 urtetik beherakoek, batez ere 30 urtetik beherako gazteek, denbora laburra dute eta geroago eta okerrago zaintzen dute euren burua. Gaizki elikatzen dira. Eta hori hasi da igartzen. Bizi-ohitura horiek aldatzea oso zaila da, denbora laburra dute. Baina ahalegindu egin beharko dute, noizbait. **Aholku bat osasuntsu egoteko?** Noizean behin osasun azterketak egitea, bizi-ohitura egokiak zeintzuk diren ikastea eta guztiak izatea osasunarekiko kezka.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

**'HOTEL RWANDA', BARIKUAN**

Terry George (*El nombre del hijo*) zuzendariaren film dramatikoa da *Hotel Rwanda*. Orain dela hamar urteko Ruandan gertatzen da istorioa, tutsien eta hutuen arteko gerra zibil latza hasi zenean. 1.200 lagun baino gehiago salbatu zituen Paul Rusesabaginarene istorioa kontatzen du film horrek. Besteak beste, Don Cheadle, Sophie Okonedo eta Nick Nolte aktoreek parte hartzen dute. 110 minutu ditu.

**DOMEKAN, NEMO**

Marrakzi bizidunen *Buscando a Nemo* filma emango dute. 2003ko filma da, marrakzi bizidunen film onenari Oscar saria eman zioten urte hartan. Nemo txikia pailazo-arrain txiki bat da. Itsasoan harrapatu eta dentista baten arrainontzira sartuko dute.

**EMAKUMEEN TOPAKETA**

Zuiako Koadrilako Emakumeen X. Topaketa datorren ekainaren 10ean izango da, Legutianoko kultura etxean. Joan nahi duenak ekainaren 1a baino lehen eman behar du izena honako telefonoan: 945 43 01 67.



# Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a / 8. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorala Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

**GATZAGAKO BASOAK/** Leintz Gatzagako basozainarekin izan gara berbetan

## Fermin Lezeta: "Hiruerreketara bidean dagoen tantaidia da paraje ikusgarriena"

XABIER URTZELAI

Fermin Lezeta arduratzen da, beste lankide batzuekin batera, Leintz Gatzagako eta Eskoriatzako basoak zaintzeaz. 20 urte daramatza lan horretan, eta Udalarenak diren basoak eta lurjabe pribatuenak ezberdintzen ditu. Eginbeharrekoen artean, Diputazioaren eta lurjabeen artean bitartekari lana egitea da.

Gatzagak 15 kilometro koadro ditu, batzuk pribatuak, beste batzuk Udalarenak: "Hamabost hektarea horietatik, ia hamar Udalarenak dira, herri-basoa esaten zaiona. Eta gainontzeko bost hektareak pribatuak dira".

Horrekin batera, egiten duen lanaren berri ere eman digu Ferminek: "Alde batetik, mendi publikoa kudeatzen dugu: egin behar diren landaketak, pistak, lursailen itxiturak, ehiza eta arrantza zaindu, suteak... Eta bestetik, lursail pribatuetan ere egiten dugu lan. Hor, lurjabeen eta Diputazioaren artean bitartekari lanak egiten ditugu: dirulaguntzak, mozketak egiteko baimenak, sua egiteko baimenak... Lan hori Bergaran dagoen nekazari bulegoan egiten dugu".

Landaketa azkarreko zuhaitzekin bete dituzte Euskal Herri-



Arrasateko Monterron parkean egin beharreko lanak bertatik bertara jarraitu zituen Ferminek. Hantxe atera diogu erretratua.

ko mendiak: "Zuhaitz horiekin etekin ekonomikoa izatea ondo dago, baina basoak orekatuak izan daitezten egin behar dugu lan, hemengo zuhaitzez betetako basoek ere lekua behar dutelako".

Basozainek ez dute ordutegi zehatzik, ez eta ordu kopuru finkorik ere: "Ahalegintzen gara zortzi orduko lanegunak egiten, bai-

*"Esango nuke suteak saihesteko modu onena basoa garbitzeko sua ez erabiltzea dela"*

na batzuetan ez da posible izaten. Horrekin batera, asteburuetan eta horrelakoetan txandatu egiten gara, baina beti egon behar dugu gertu". Horren harira, Gatzagako eta inguruko basoek izan dezaketen arriskuaren gainean galdetu diogu: "Aurten, beste urte batzuetan baino euri gehiago bota du, eta ez gaude lehorteekin arduratuta, ezta

suteekin ere. Beste urte batzuetan, baina, hemen ere lehorteak izan ditugu, eta orduan bilakutzen da sua etsai nagusi. Etengabeko tentsioan egoten gara orduan. Egia da, baina ere, azken urteotan ikusten gabiltzan klima aldaketa arduratzeko modukoa dela, hemengo basoek hezetan handia behar dutelako". Suteei aurre egiteko dauden babes neurrien gainean ere galdetu diogu: "Hemen ez ditugu cortafuegosedo suebakiak horrenbeste erabiltzen, bestela ere nahikoa pista daudelako, eta erraza delako edozein lekutara iritea. Baserritar asko daude, Diputazioak kontratatuta, suteran bat egonez gero lanera joateko. Baina egoera larria denean konturatzen gara suak daukan benetako indarrarekin. Alde horretatik, prebentzio onena da garbitze lanak egiteko surik ez erabiltzea".

Gatzagako aberastasunaren gainean ere egin dugu berba: "Gatzagak balio natural handia dauka, eta zerbait azpimarratzekotan, erreka-burua zein ondo kontserbatu den, hazkunde azkarreko arbolak jarri barik, eta haritzez beteta". Horrekin batera, Gatzagako leku kuttunena zein den galdetuta, zera bota digu: "Hiruerreketara bidean dagoen tantaidia da paraje ikusgarriena".

## Azpiegiturekin lotutako lanen lehiaketa deialdia, zabalik

X.U.

Eguaztenean argitaratu zuen GAOk, Leintz Gatzagako azpiegitura urbanizatzeko lanak egiteko lehiaketa deialdia irekita dagoela. Ekainaren 2ra arte egin ahal izango dira erreklamazioak.

Joan den apirilaren 28an onartu zuen Gatzagako Udalak herriko azpiegitura orokorra urbanizatzeko lanak egitea. Hala, lanok

hasten dituztenean, lurzorua jaso eta gas hodiak, saneamenduko hodiak, ura eta etorkizunean beharrezkoak izan daitezkeen beste elementu batzuk ere jartzeko aprobetxatuko dute, zuntz optikoa, besteak beste.

### 217.850 EUROKO AURREKONTUA

Lan horiek egin gura dituzten enpresek ekainaren 20ra arte izango dute euren eskaintza aurkezteko. Eta hiru hilabete izango dituzte lanok egiteko. Gas


hodiak sartzeari izango da lan horien helburu nagusia, baina ura eramaten duten hodi zaharrak aldatzea ere. Horrekin batera, ur-hargune gehiago ere jarriko dituzte. Joan den urtean suhiltzaileak izan ziren herrian, eta Gatzagan hiru ur-hargune badaude ere, ura botatzeko mahukek ondo ibiltzeko behar duten gutxieneko presioa ez zen nahikoa. Eta hori behar den moduan jartzeko ere egingo dituzte lanok.



Lurzorua jasoko dutenez, Gatzagako hainbat kale hankaz gora egongo dira.



eta zuk, nola ikusten duzu?  
egunsenti bat edo momentu erromantiko bat?



# EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK 68€

HONDARTZARAKO  
TOAILA  
BAT  
OPARI

MultiOpticas-ekin eguzkia nahi duzun moduan ikus dezakezu

30 eurogatik bakarrik zure gustuko betaurrekoak graduatzen ditugu

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

**MULTIOPTICAS**

Eskaitza baliagarria, 2005/07/30, momentuan eguzkitako betaurrekoak erostean (6ko kurba edo txikiagoa. Diametroa: 65 (+) 70 (-). Eguzkitako lente organiko monofokalak. Astigmatismoa, gehienez 2 dioptria. Gehieneko graduazioa: +/-5 dioptria.

J. Carlos Guerra 1  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

Bidebarrieta 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

Koldo Mitxelena, 7  
Tel.: 943 51 78 11  
**ERRENERIA**

Mendibil M. G.  
Tel.: 943 63 99 01  
**IRUN**

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel.: 943 88 99 88  
**ORDIZIA**

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70  
**TOLOSA**

n  
a  
r  
e  
n

Masajeak

Osteopatia

Fisioterapia

Etxez-etxeko zerbitzua

Hainbat aseguru-etxeekin lan egiten dugu.



Masajeak



Fisioterapia



Osteopatia

**FISIOTERAPIA  
ZENTROA**

Belorrieta auzoa 5, behea  
ARETXABAleta  
Tel.: 943 08 21 89

Fisioterapeutak:  
Nagore Llodio  
Miren Maiztegi



maiatzean eta ekainean

# 2x1

## BIDAIA-LAGUNA DOAN

Konpara ezazu prezioa - konpara ezazu kalitatea

**12.000**

Plaza Bakarrik

**8.000 GELDITZEN DIRA!**

### KANARIAK

8 egun / 7 gau

MAIATZA ETA EKAINA

#### TENERIFE

	OB	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
VALLELUZ APTU. 2LL		366€	DOAN
CHIMISAY H. ***	HG	420€	DOAN
PALMERAS PLAYA APTU. 3LL	ME	548€	DOAN
TURQUESA PLAYA G.H. ****	HG	602€	DOAN
PLAYACANARIA H. ****	HG	626€	DOAN
BONANZA PALACE H. ****	ME	722€	DOAN

#### TENERIFE HEGOALDEA

TENERIFE GOLF H. ****	ME	536€	DOAN
EST. GREEN PARK 3LL	ME	548€	DOAN
AGUAMARINA GOLF H. ****	HG	578€	DOAN

#### LANZAROTE

EST. SOL MORROMAR 3LL	ME	502€	DOAN
RIOSOL APTU. 2LL	GB	660€	DOAN
BEATRIZ COSTA H. ****	ME	666€	DOAN
PARADISE ISLAND H. ***	GB	778€	DOAN
MARINAS CLUB RESORT H. ****	GB	786€	DOAN

#### GRAN CANARIA

CONCORDE H. ****	ME	746€	DOAN
MELIÁ TAMARINDOS H. ****	HG	840€	DOAN

### MALLORCA

8 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	ME	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
SAGA H. **		420€	DOAN	428€	DOAN
SOL MASTINES/CHIHUAHUAS H. ***	ME	476€	DOAN	532€	DOAN
RIU BALI H. ***	ME	562€	DOAN	622€	DOAN
ILLETAS H. ****	ME	632€	DOAN	710€	DOAN
RIU BONANZA PARK H. ****	ME	640€	DOAN	748€	DOAN
RIU PLAYA CALA MILLOR H. ****	ME	686€	DOAN	754€	DOAN
RIU PLAYA PARK H. ***	GB	704€	DOAN	774€	DOAN
DELTA H. ****	ME	744€	DOAN	774€	DOAN
RIU CAMP DE MAR H. ****	ME	806€	DOAN	856€	DOAN

### DOMINIKAR E.

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	GB	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
PUNTA CANA		900€	DOAN	1.038€	DOAN
OFERTA RIU ****	GB	984€	DOAN	1.134€	DOAN
NATURA PARK H. *****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
RIU TAINO H. *****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
FIESTA BEACH H. *****	GB	1.174€	DOAN	1.174€	DOAN
LA ROMANA		1.174€	DOAN	1.174€	DOAN
SANTANA BEACH H. *****	GB	1.174€	DOAN	1.174€	DOAN
PUERTO PLATA				1.090€	DOAN
RIU MAMBO H. *****	GB			1.090€	DOAN

### MEXIKO

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	GB	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
CANCÚN		1.340€	DOAN	1.340€	DOAN
RIU CANCÚN H. *****	GB	1.340€	DOAN	1.340€	DOAN
RIVIERA MAYA		1.198€	DOAN	1.198€	DOAN
CARACOL VILLAGE H. ****	GB	1.198€	DOAN	1.198€	DOAN
RIU LUPITA H. *****	GB	1.228€	DOAN	1.228€	DOAN
RIU TEQUILA H. *****	GB	1.352€	DOAN	1.352€	DOAN

### KUBA

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	HG	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
LA HABANA		906€	DOAN	906€	DOAN
COPACABANA H. ****	HG	942€	DOAN	942€	DOAN
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	1.022€	DOAN	1.022€	DOAN
GRAN CARIBE INGLATERRA H. ****	HG	1.214€	DOAN	1.214€	DOAN
TRYP HABANA LIBRE H. *****	HG	1.214€	DOAN	1.214€	DOAN
VARADERO		1.180€	DOAN	1.180€	DOAN
RIU LAS MORLAS H. ****	GB	1.180€	DOAN	1.180€	DOAN

# 2x1 KOSTAK

8 EGUN / 7 GAU  
BIDAIA-LAGUNA DOAN

Costa Brava · Costa Daurada · Costa de Azahar eta Valentzia · Costa Blanca · Costa de Almeria · Costa Tropical · Costa del Sol · Costa de la Luz

**IRTEERAK BILBOTIK**

Irteerak Bilbotik, Kariberakoak izan ezik (hauek Madrildik). Prezioak bi pertsonentzat dira, logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, Maiatza eta ekaineko Irteera zehatzentzat bakarrik. Erregaien igoera, tasak, bisa eta gestio gastuak ez daude barne. Erregimena: OB: Ostatura Bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa eta GB: Guztia Barne. PLAZA MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGITEN DUGU

# VIAJES IBERIA